

## "ZUGAZAN AURKEZTUKO DUDAN LEHENENGO LAN LUZEA DA 'MARCO'; ILUSIO BEREZIA EGITEN DIT"

Sagardoyk hiru film luze ekoitzi ditu  
aurten; tartean, eguaztenean

Zugazan aurrestreinatuko duena: 'Marco' / 2-3

Ander Sagardoy Mujika.

DANI BLANCO / ARGIA

### "Poz handia ematen dit emakumeak bertsotan ikusteak; batez ere, gorenko mailetan"

/ 18



### "Sokatirak tradizio handia du Abadiñon; probatzera animatu gara eta pozik gabiltza"

/ 20



### Elorrioko ziklo- krosak euskal ziklistarik onenak batuko ditu asteburuan San Joseko zirkuituan

/ 21



DOMU SANTU EGUNA / 13-17



Aritz Maldonado ZINEMA

Lanez lepo baina ilusioz beterik harrapatu du ANBOTOk Ander Sagardoy ekoizlea (Durango, 1994). Izan ere, ez da ohikoa urtean hiru film luze (*Marco*, *Azken Erromantikoak* eta *Nina*) estreinatzea -lau lan, *Cristobal Balenciaga* telesaila kontuan hartuta-; eta gutxiago denak zinema jaialdi garrantzitsuetan aurkeztea. Besteak beste, Veneziako Zinema Jaialdian eta Donostiako Zinemaldian egon da aurtien Sagardoy. Azaroan, zinema areto komertzialetara helduko dira *Marco* eta *Azken erromantikoak*; beraz, horiek aurkezteko lanetan murgilduta dago orain ekoizle durangarra. Gainera, Aitor Arregi eta Jon Garaño zinemagileek zuzenduriko lanaren aurrestreinaldia etxean egingo du, Durangoko Zugazan; urriaren 30ean izango da, 19:00etan. "Niretzat horixe da pelikula baten momenturik politena. Topiko bat da, baina asko gustatzen zait, une horretan ikusleak bere egiten duelako pelikula", adierazi du Sagardoyk.

**Zelako urte amaiera izaten ari da?**

Ez da ohikoa hiru film luze estreinatzea urte berean. Ekoizte-txeen tamainaren arabera da hau, eta, gure kasuan -Irusoin ekoiztetxea- urtean estreinaldi bi izan ditugu asko jota. Aurtengoa salbuespena da, *Nina*, *Azken erromantikoak* eta *Marco* estreinatzeaz gainera, *Cristobal Balenciaga* ere estreinatu dugulako aurtien. Ezohikoagoa da oraindino zinema jaialdi berean hiru pelikulagaz egotea, niri egokitu zaidan moduan. *Marco* Anoetako belodromoan estreinatu genuen, Perlak sailean, 1.500 lagun aurrean; lehenago Veneziako Mostran estreinatu genuen, eta beraz, ezin genuen sail ofizialean eman. *Azken erromantikoak* filmeagaz New directors sailean egon ginen. *Nina* Made in Spain sailean egon zen, urtean zehar estreinatutako nabarmenen artean.

Pelikula bakarragaz bada ere, Donostian egotea ona da; urte amaieran lana pilatuko zaizula adierazten du, baina seinale ona da. Nahiko Zinemaldi potentia izan dut, egia esanda.

**Alfonbra gorriko argazkiek baino lan gehiago dute zinema jaialdiek.**

Bai, alfonbra gorrikoa anekdotikoa da ia. Bertako argazkiak mundu osoan ikusten dira, baina, ekoizle modura, horrelako jaialdiek lan handia eskatzen dute.

# "Pelikula zine aretoetara heltzen den une hori berezia da"

**ANDER SAGARDOY** IRUSOINEKO EKOIZLEA ETA SUMENDI FILMAKEKO BAZKIDEA 2024a urte gogorra bezain polita izaten ari da Ander Sagardoy ekoizle durangarrarentzat; besteak beste, fikziozko lau lan estreinatu ditu aurtien



Ander Sagardoy eta Ander Barinagarrementeria ekoizleak Donostiako Zinemaldian.

Oraindino gehiago Donostiaren kasuan, jaialdi egonkortua izatera bertan batzen delako industriako zati handi bat, estatukoa zein nazioartekoa. Martxan ditugun proiektuak gaurkotzeko baliagarria da, bazkideekin berba egiteko, proiektu berriak merkaturiko agente berriei erakusteko... Industria osoa Donostian batzen da egun horietan, eta lanik handiena agenda koadratzeak ematen du. Prentzagaz ere lan asko egiten

da. Jaiak ere egoten dira, galak ere antolatzen direlako. Egunean 24 orduz jaialdiko dinamikan zaude. Une kritikoak ere badaude, prentsa paseak izan eta gero kazetariak enbargua altxatzen dutelako. Lagunek bisitan etortzeko baliatu gura dituzte egun hauek, baina oso egun kolplikatua dira niretzat (barrez). **Azaroaren 8an eta 15ean estreinatuko dituzue 'Marco' eta 'Azken erromantikoak' areto komertziale-**

**tan. Horrek ere lana emango dizu.** Gaur egun, pelikulek bigarren edo hirugarren bizitza bat izan dezakete plataformekin, baina niri zinema aretoetako estrei-

**"EUSKARAZ PELIKULA BAKARRA ESTREINATU DELA KONTUAN HARTUTA, KOMENIKO LITZATEKE BABESTEA"**

naldiak pizten dit ilusiorik gehien. Berezia da. Festibaletan ikusle mota bat dago, eta zinema aretoetan beste bat, betiko ikusleak dira. Azaro gogorra dator, baina urria ere horrelakoa izaten ari da. Estreinaldia baino hilabete lehenago lan handia izaten dut, aurrestreinaldi, elkarrizketa, publizitate kanpaina, iragarki eta abarrekin. Baina garai polita da, baliagarria delako pelikula normalizatzeko; pelikulan aurretik egindako lan guztiak zentzua hartzen du estreinatu eta gero. Filma estreinatu osteko aste bietan pilatu egiten zait lana, aste garrantzitsuak direlako. Izan ere, zinema aretoetan irauteko, lehenengo asteburuko salmentak garrantzi handia du. Zinema aretoen egoera hobetzen dabil azken urteetan egiten dabiltzan programa eta egitasmoengaitik, eta pelikula bat ezin da epaitu zinema aretoetan egiten duen ibilbidearen arabera, baina horixe da errealitatea. Bestela, geure burua jipoitzen ibiliko ginateke astero. Esan dudan moduan, plataformek bigarren bizi zabal bat ematen diete pelikulei, eta kontsumo ohiturak ere horietxek dira. Gu zinema aretoak lehenesten ahalegintzen gara, industria denon artean osatzen baitugu, baina kontsumo ohiturak horietxek dira.

Durangoko aurrestreinaldiak ilusio berezia egiten dit, Zugazan aurkeztuko dudana lehenengo lan luzea izango delako. Berezia izango da, gainera, pelikula berezia delako. Veneziatik eta Donostiatik heltzen den pelikula bat da, Moriarti ekoiztetzeko lagunek zuzendu dutena. Eta hori itzela da. Gainera, zuzendarien buruan hogeitaz egon den ideia bat izan da; beraz, saio hori Durangon egiteak pelikulari testuinguru bat ematen laguntzen dio.

**Sumendi Filmak ekoiztetxea sortu zenuen Eneko anaiagaz batera, 2020an. Zelako lankidea da?**

Bartzelonan nengoanean sortu genuen, gure bidetik egin gura genituen lanak ekoizteko. Agendagaitik, eta beste arrazoi batzuegaitik, gure lehenengo lana izatekoa zen *Betiko gaua* film laburra 2023ra atzeratu behar izan genuen. Baina martxa onean ibili gara lanean, eta orain, bazkide berri batez, Bartzelonara hurbiltzen hasi gara berriro. Momentu onean gaude: bide bat egiten dugu film laburrekin, eta



datorren urtean grabatuko dugu Sumendik ekoitziko duen lehenengo lan luzea. Bestalde, *Betiko gaua* Goya sarietarako hautagai izan daitekeen 30 laburretariko bat da; abenduan jakingo dugu hautagai izango garen ala ez. Hala ere, pozik nago egin duen ibilbideagaz, leku askotan ikusi delako, festibaletan, eta, bestek beste, Shangain eta Moskun.

Ilusio berezia egiten didate Enekogaz batera egiten ditudan proiektuek. Orain arte ekoitzi ditudan lan luzeetan ez dut lan-kide izan, eta, beraz, *Betiko gaua* izan da lehenengo esperientzia zuzena. Egia esanda, oso erraza izan da beragaz lan egitea. Berak konfiantza osoa izan du nigan ekoizle legez, eta nik ez dut bere lana zalantzan ipini. Zuzentzen duen lehenengo lana izan da, baina urteak daramatza sektorean, eta hori igarri egiten da. Oso profesional jokatu du, eta erabakiak hartzean ere fin ikusi dut.

**Zaintzuk istorio kontatu gura dituzue?** Hasieran lelo bat genuen, baina errealitateak beste norabaitera eramane gaitu. Ikusi gura genituzkeen pelikula egin gura genituen, baina orain ez dugu helburu zehatzik pelikula bati buruz; gidoia irakurri eta emozionatu egin behar gaitu, kontatzeko moduagaitik edo istorioagaitik. Hizkuntzak ez du zertan lotua egon, baina, egia esan, sentsibilitate berezi bat dugu euskaraz kontatzen diren pelikulekin.

**Euskal zinemaren loraldi bat dago?** Enekok oso ondo erantzuten du hori galdetzen diotenean. Berak dio sei urte daramatzala loraldiarena entzuten; hortaz, edo sei urte daramatzagu loraldi batean, edo nahiko autokonplazientzak izaten ari gara. Egia da 2025a euskarazko estreinaldi eta grabazio askogaz datorrela, baina euskarazko ekoizpen gutxi dago. Aste honetan hasiko gara Moriartiren *Maspalomas* pelikula berria grabatzen; urte hasieran Paul Urkijoren *Gaua* hirugarren pelikulagaz ere hasiko gara. Badaude gauzak, bai, eta gu bulkadek eramaten gaituzte horrelako istorioak kontatzera. Baina ez

**"ZINEMARA JOATEA SUSTATZEKO, FUNTSEZKOAK DIRA ZINEKLUBAREN MODUKOAK"**

gara erlaxatu behar datorren urtean lau pelikula egongo direlako, aurtengo urtea bereziki zaugarria izan delako. Hortaz, militantziatik ere, euskaraz pelikula bakarra estreinatu dela kontuan hartuta, zinema aretoetan hori babestea komeniko litzateke. Jendeak badaki, baina ondo dator gogoratzea horrela erreferentziak sortzen direla. Plataforma, erakusketari eta abarrek badakite, ez da ekintza sinboliko hutsa.

**Zinema aretoetara jende gehiago joaten dela aipatu duzu, baina plataformak eguneroko bilakatu dira. Istorio bat kontatzerako orduan, eragiten dizu zinerako sortu ala ez?**

COVIDa inflexio puntu bat izan zen kontsumo ohituretan, garai hartan plataformek indarra hartu zutelako, eta ez da aurreko egoerara bueltatu. Eta horrelako dinamika berrezartzea oso gaxta da. Guk, jakina, kontuan hartzen ditugu plataformak, finantziario iturri garrantzitsua direlako alde batetik; bestetik, badakigulako pelikulek hor amaituko dutela, eta hori interesgarria ere bada, pelikulari beste bizi berri bat ematen diotelako. Baina, pelikula, zinema aretoetan estreintzeko egiten ditugu beti, eta horrela grabatzen ditugu, edo horren arabera hartzen ditugu erabaki estetikoak; pantaila handian ikusteko kalitateagaz grabatzen ditugu. Horri lotuta, berriro ere zinema aretoen balioa eta garrantzia nabarmendu beharko liratekeela uste dut. Oso esperientzia desberdina da pelikula bat zinema ikustea, irudi onagaz, soinu onagaz eta pantaila handi batean, edo etxeko telebistan ikustea. Nik etxean ez dut lortzen pelikula bat osorik ikustea mugikorrera begiratu barik. Ezinezkoa zait, eta, beraz, ez dut berdin gozatzen. Baina zinemara joateak, sarreraren prezioaz gainera, badu beste kostu bat: denbora. Zure dinamika berrezarri behar dituzu, pelikula irauten duen denbora horri eskaintzeko.

Horregaitik dira funtsezkoak Durangon martxan ipiniko duten zineklubaren moduko egitasmo herritarrak dinamika horiek sustatzeko. Modu komunitario batean, zinema guztiz apartatuta zuten pertsona horien bizitzara hurbildu dezakete zinema. Horrelakoek itzelean pozten naute. Eta zinema aretoak pelikula ikusteko modu berezia direla gogoratzen didate.



Ander Sagardoy, ezkerretik hasita lehenengoa, Veneziako zinemaldian, 'Marco' filmeko lantaldeagaz. IRUSOIN



Sagardoy, Donostiako Zinemaldian. IRUSOIN



Sagardoy, Veneziako Zinema Jaialdian. IRUSOIN



# "Iraultza energetikoa egitea denon ardura da"

**JOSE MITXELENA** EKIHERRI ERRENTERRIAKO ENERGIA KOMUNITATEKO LEHENDAKARIA Durangoko herritar talde batek energia komunitatea sortzeko bidea hasi du. Mitxelenak Errenteriako esperientziari buruzko berbaldea emango du hilaren 30ean

## Ekaitz Herrera DURANGO

Energia komunitateak irabazi asmorik bako kooperatibak izaten dira. Energia berriztagarria dute oinarri, eta autokontsumoari begirako instalazioak sortzen dituzte elkarlanean. Orain, Durangoko herritar talde batek trantsizio energetikoan eragiteko bide hori urratzeari ekin dio, udalerrian energia komunitate bat sortzeko proiektua mahai gainean ipinita. Abiapuntu modura, berbaldea bat antolatu dute. Urriaren 30ean, *Zergatik eta zertarako Durangon tokiko energia komunitatea?* galderari erantzun diote Jesuitak ikastetxeko Arrupe aretoan, 18:30ean. Berbaldean, energia berriztagarria merkaturatzeko Goiener kooperatibako kideak eta Errenteriako Ekiherri Energia Komunitateko kideak egongo dira azalpenak ematen. Azken honetako presidentea da Jose Mitxelena, eta bere udalerrian garatutako esperientziari buruzkoak partekatuko ditu durangarrekin.

**Berbaldiaren izenburuari buruz galdetuta hasiko dugu elkarrizketa. Zergatik eta zertarako tokiko energia komunitate bat?**

Zergatik? Iraultza energetiko hau denon erantzukizuna dela eta denok parte hartu behar



Jose Mitxelena. JOSE MITXELENA

dugulako. Jasangarriagoak izan behar dugula eta energiaren ikuspegitik ohitura hobek behar ditugula diogunean, askotan besteen gain uzten ditugu ardurak. Adibidez, energia enpresa handien gainean. Alabaina, bakoitzak bere mailan, bere eskalan, badauka zerbait egiteko ardura eta aukera. Energia komunitateak horretarako aukera dira. Eta, zertarako? Energia hobeto erabiltzeko, aholkatzeko, ohitura onuragarriak zabaltzeko eta aurrezteko.

**Errenteriako energia komunitatean eguzki plakak ipini dituzue. Energia**

**sareratzea baino ez zaizue falta. Zelako esperientzia izaten ari da zuena, eta zelako erreferentziak dituzue gainerako udalerrietan?**

Hernaniko energia komunitatea martxan da. Elgetakoak denbora bat darama funtzionamenduan, eta gero badira TEK erako komunitateak; adibidez, Lasarte-Orian. Beste esperientzia asko, berriz, gurearen moduko egoeran daude. Hau da, azpiegitura energetikoa bukatuta izan arren, oraindik tramite administratibo eta burokratikoak amaitzea eta azpiegitura sarera konektatzea falta zaie. Errenteriako eta Oiar-

tzungo kasuak, adibidez, horiek dira. Gure obra joan zen astelehenean bukatu genuen eta OCA erakundearen, Baimendutako Kontrol Erakundearen, onspena dugu. Orain energia banatzeaz arduratzen den enpresarekin gabiltza tramitazio lanetan, gure azpiegituran ekoiztuko den energiaren banaketa formalizatzeko. Orain sei hilabete 50 bazkide ginen. Momentu honetan ia 130 gaude. Beste 20-30 bazkide behar ditugu gure azpiegituran sortuko den energia behar bezala banatzeko.

**Zelakoa izaten da energia komunitate barruko kideen mekanika? Bazkide denak zer egin behar izaten du?**

Bazkide mota asko dago. Izan zaitezke bazkide laguntzailea edo bazkide kontsumitzailea, adibidez. Errenteriako kasuan, bazkide kontsumitzaileak 100 euroko ekarpena egin behar izaten du lehenik. Hortik aurrera, bazkide bakoitzak bere etxean edo establezimenduan behar duen energia kantitatearen arabera ekarpena egiten du. Behin bazkidetza beteta, bakoitzak behar duen energia beharizana kalkulatu dugu. Helburua soberakinik ez egotea da.

**Zeintzuk dira autokontsumorako azpiegitura instalatzerakoan bete behar diren irizpideak?**

Zure etxeko kontsumotik autokontsumo partekatua eskaintzen duen instalazio fotoboltaiko baterako gehienezko distantzia kilometro bikoia izan behar da. Lehen, muga hori 500 metrokoa zen, gero kilometro batera zabaldu zuten, eta handik gutxira, bira. Normalean, energia komunitateak eguzki panelekin eraten dira eta kasu horretan komenigarria izaten da eraikinetako teilatu lauak eta hegoaldera

begira daudenak erabiltzea. Energia komunitate batek instalazio bat baino gehiago izan dezake, lehen aipaturiko distantzia mugek eta baldintzek eragina izan dezaketelako herri eta komunitate bateko bazkideen banaketan.

**Energia komunitateen helburua ez da autokontsumoa eta subiranotza energetikoa lortzea bakarrik. Energiaren kontsumoa gutxitzea ere badute helburu?**

Gure kasuan, Oarsoaldean, badago eskualdeko garapen agentziak kudeatutako energia bullego bat. Aholkularitza lanak egiten dituzte energia hornitzaileen fakturak interpretatzeko eta azaltzeko. Eta gure asmoa ere bada aholkularitza lan bat eskaintzea. Dena ez delako "energia gehiago behar badugu, instalazio gehiago egingo dugu" hori. Jendeari azaldu behar diogu energia zelan gutxitu, ohiturak zelan aldatu. Azken finean, kontsumitzen ez den energia da garbiena eta merkeena. Kontzientziazio lan bat egin behar dugu. Bide luzea izaten da hori, baina ez da bazterrean utzi beharreko zerbait. Energia komunitate eredu asko dago. Batzuk TEK erakoak dira, enpresek sustaturikoak. Beste batzuk, gure kasuan bezala, udalen babesean eta bizilagunen artean eratutakoak. Eredu guztiak dira baliagarriak, ezin dira baztertu. Bakoitzaren egokitasunaren arabera aztertu behar dira aukera guztiak.

**"KONTSUMITZEN EZ DEN ENERGIA DA MERKEENA. KONTZIENTZIAZIO LANA DUGU HOR"**

## Durangoko kirol ikastaroetan igo egin da izen emate kopurua

Aurtengo kirol jardueretan, 7.275 lagunek eman dute izena; iazko ikasturtean baino %20 gehiago dira

### Aitziber Basauri DURANGO

Durangoko Udalak programaturiko kirol eskaintzak geroago eta harrera hobea duela adierazi dute udal arduradunek. 2024-2025 ikasturterako antolatutako kirol jardueretan 7.275 lagunek

parte hartuko dute; hau da, izen ematea %19,97 handitu da aurreko ikasturteagaz alderatuta. Udal ordezkariak azaldu dutenez, fitnessak eta eskaladak "hazkunde nabarmena" izan dute; hurrenez hurren, 1.586 eta 1.083

lagunek eman dute izena jardueren horietan parte hartzeko. Bestalde, aurten, nobedade modura, Strong Zunba, TXR, Gazte-Fit eta Dantza Latinoak eskainiko dituzte, eta berrikuntza horiek izen emateen igoeran eragina izan dutela nabarmendu dute: "hazkunde horrek erakusten du durangarrek geroago eta gehiago eskatzen dituztela kirol eta ongizate jarduerak".

Era berean, azpiegiturak "hobetzen" jarraituko dutela gaineratu dute udal ordezkariak.

## Laudion batzea dute helburu

### E.H. DURANGO

Azaroaren 16an, zapatua, Emakume Abertzaleen X. Topaketa Feminista egingo dute Laudion (Araba).

Durangoko Bilgune Feministak jardunaldian parte hartze- ra deitu du, "Euskal Herrian eta munduan dauden erronka konplexuei galderak eta erantzun posibleak bilatzeko".



DURANGOKO BILGUNE FEMINISTA



Mireia Elkorroiribe alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea.

## Udalak "oso positibotzat" jo ditu San Fausto jaiak

Jaien "arrakasta handia" azpimarratu dute, herritarren parte hartzeari zein antolakuntzari dagokionez

**Aitziber Basauri** DURANGO

Udalak "oso positibotzat" jo ditu aurtengo sanfaustoak. Jaiak "arrakasta handia" izan dutela nabarmendu dute Mireia Elkorroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak. Herritarren parte hartze "handia" eta auzoetako elkarrean "inplikazioa" aipatu dituzte, eta "jai giro seguruz gozatzeko aukera eman duen antolakuntza bikaina". Istiluak "gutxitu" direla gaineratu dute.

Jaiak baturiko 160 ekitaldiak (txupinazoa, kontzertuak, umeentzako ekintzak, 'Zezenak dira', lehiaketa gastronomikoak, mo-zorro-kalejira...) milaka herritar erakarri dituztela esan dute.

Salaketak %34 jaitsi direla esan du alkateak, eta lapurretak %41. "Gainera, ez da indarkeriaz edo indarrez egindako lapurretarik erregistratu; 'Besarkada solidarioa' izenagaz ezaguna den lapurreta bat bakarrik", gaineratu dute. Bestalde, 25 esku-har-

tze izan dira, mozkortuta, txarto edo bide publikoan jausita zeuden pertsonekin lotuta. Puntu Moreko 24 orduko telefono zerbitzuak ez du deirik erregistratu.

Ostalaritza jardueragaitik ez da inolako kezarik jaso. Bai, ostera, Mozorro Eguneko karrozzen musikak Alde Zaharrean eragindako eragozpenengaitik. "Ez ditugu karrozak debekatu, baina gaia landu beharko dugu, ondo pasatzea eta atseden hartzea uztartze aldera", esan du alkateak.

### ARGAZKI GALERIAK



Durangoko txosnaguneko patata tortilla txapelketa



Mozorro eguneko desfilea

## Nagusiei zuzenduriko ibilaldi osasuntsuak egingo dituzte

**A. B. DURANGO**

Durangoko Udalak pertsona nagusiei zuzenduriko ibilaldi osasungarriak antolatu ditu ikasturte honetan ere. Maiatze-ira bitartean, irteera bi egingo dituzte astero. Batetik, eguazte-nero, bost kilometro inguruko ibilaldi bat egingo dute, jardue- ra fisikoko teknikari batek lagunduta. "Jarduera fisikoaz

neurrian gozatu ahal izateko dago pentsatuta ibilaldia, giro atsegin eta lasaian", azaldu dute. Bestetik, Bizidun elkarreagaz elkarlanean, ibilketa nordiko irteerak egingo dituzte astelehen-ero; 8-10 kilometro arteko irteerak izango dira. Kasu bietan, Kurutziazako iturria izango dute elkargune, 09:30ean.

Parte hartu gura duenak 944 657 451 telefono zenbakian eman dezake izena, edo [adintek@durango.eus](mailto:adintek@durango.eus) helbide elektronikora idatzita.

# Kultur etxeari ekarpenak egiteko epea, zabalik

Herriak egundo izan ez duen azpiegitura bat sortzea erabaki du Zaldibarko Udalak. Udalbatzak argi berdea eman dio Alde Zaharreko Sanjuangoa eta Elexpe eraikinetan kultur etxea egiteari. Ekarpentak azaroaren 15era arte egin daitezke

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

Zaldibarko udalbatzak kultur etxea egiteko proiektua onartu du EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren eta PSE-EEren abstentzioagaz. Kultur etxea udalarenak diren Elexpe eta Sanjuangoa eraikinetan egingo dute, bide batez "hainbat helburu estrategiko" beteta. Udalaren berbetan, herritarrek eta eragileek "udalerririk merezi duen programazio kulturala garatu ahal izango dute helburu horretarako ezinbestekoa den azpiegitura batean". Bestetik, kultur etxeak "Alde Zaharra biziberritzea" ekarriko du, eta, azkenik, "herritar guztiena den ondarea zaintzeko eta horri balioa emateko aukera eskainiko du". Kultur etxeak 715 metro koadroko espazio erabilgarria izango du eta bilera gelak, ikasgela, liburutegia, auditoriuma eta erabilerak anitzeko gela izango ditu barruan. Proiektua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu-



Kultur etxea izango denaren infografia. ZALDIBARKO UDALA

ta dago jada eta herritarrek azaroaren 15era arteko epea dute ekarpenak udalean egiteko. Proiektuaren aurrekontu orokorra 3.125.557,13 eurokoa da eta udalak finantziarioa lortzeko bide guztiak zabalik ditu.

Elexpe eta Sanjuangoa eraikinak udalarenak dira 90eko hamarkadatik hona. Tarte horretan, ez dute kultur etxerik izan herrian. Eneritz Azpitarte alkateak azaldu duenez, "bada garaia kultur etxea izateko".

## Erosketa bonuen kanpaina berria hasi dute Durangon

Herrian kontsumitzea sustatu gura duen kanpainaren bitartez, 10.327 erosketa bonu kaleratuko dituzte

**A. B. DURANGO**

Erosketa bonuen kanpaina berria hasi dute Durangon, herrian bertan kontsumitzea sustatzeko eta tokiko merkatari eta ostalariei laguntzeko. Bonuak eguazte-neretik daude salgai.

Durangoko Udalak eta Dendak Bai elkarreagaz bultzaturiko kanpainaren bitartez, 10.327 erosketa bonu kaleratuko dituzte. Bakoitzak 15 euroko balioa du eta 10 eurogaitik erosi daiteke. Gogoratu dute herritar bakoitzak lau erosketa bonu eskuratu ahal izango dituela gehienez. Urria-



Kanpainaren sustatzaileak.

ren 27ra bitartean, Durangon erroldaturikoek baino ezingo dituzte eskuratu bonuak. Urriaren 28tik azaroaren 24ra, gainerako herritarrek ere izango dute aukera. Behin bonua erosita, ezingo da bueltatu.

Erosketa batean, bonu bi erabili daitezke gehienez, eta bonu bakoitza behin baino ezingo da erabili. Bonuak HAZen dagoen herritarren kutzazainean eta [www.bonoadurangoeus](http://www.bonoadurangoeus) webgunean egongo dira eskuragarri. Webgune horretan kontsultatu daiteke, eta baita kanpainara atxikitako establezimenduen zerrenda ere. Uneo eguneratuko dute. Izan ere, ekimenera atxiki ez diren komertzio eta ostalariek horretarako aukera dute oraindino, HAZen edo egoitza elektronikoa. Gehienez, 200 bonu trukatatu ahal izango dituzte.



# Aurrekontuak osatzeko iritzien bilketa, martxan

Urriaren 28tik aurrera, martxan egongo da aurrekontu parte hartzaileen prozesuko lehenengo fasea. Azaroaren 17ra arte proposamenak jasoko dituzte udaletxean, Errotan, Traña-Matienako udal bulegoan eta Mediatekan. Baita [partehartu.abadiño.org](http://partehartu.abadiño.org)-en ere

## Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Astlehenean, urriak 28, ekingo diote aurrekontu parte hartzaileen prozesuari. Udaletik esan dutenez, lehenengo fase honetan 16 urte-tik gorakoek eta herriko elkarte eta taldeek "Abadiño hobetzeko" proposamenak egiteko aukera izango dute. Azaroaren 18an proposamen guztiak jaso, eta udalak aztertu egingo ditu hile horretan zehar. Behin proposamenak aztertuta eta araudia betetzen dutenak zehaztuta, horiek amaierako bozketara pasatuko dira. Amaierako bozketa abenduan izango da. Abadiñon erroldatutako herritarrek baino ezingo dute eman botoa.

Udalak 130.000 euro erabiliko ditu aurrekontu parte hartzaileetarako. "Aurrekontu parte hartzaileen prozesua herritarrek ahaldundu eta udaleko erabakietan zuzenean parte hartzeko tresna garrantzitsua da. Legegintzaldi honetan aurrerapausoak ematen gabiltza alor honetan,



Edurne Maguregi eta Mikel Urrutia.

eta egitasmo honetarako diru partida %30 igo dugu. Iaz, inoiz baino herritar gehiagok parte hartu zuten, eta aurten urrats kualitatibo bat ematea eta %10eko langara hurbiltzea da asmoa", azaldu du Mikel Urru-

tia alkateak. "Hobekuntza handia egin dugu proiektuak hautatzeko prozesuan, inklusiboak izateko eta proiektu handiak zein txikiak gauzatu ahal izatea bermatzeko", gaineratu du Edurne Maguregi alkateordeak.

## Elegante Eguna, herri bazkaria eta kontzertuak Mallabian

Gaurtik domekara bitartean, Urriko Jaiak ospatuko dituzte. Horretarako, askotariko ekintzak antolatuko dituzte



Ezpalak taldea.

**Maialen Zuazubiskar MALLABIA** Malle Pilota Klubak txupinazioa jaurtita emango diote hasiera, gaur, Urriko Jaiak Mallabian. Askotariko ekintzaz beterik egongo da asteburua. Gaur, esaterako, kickboxing-boxeo gaua egongo da herriko frontoian, eta elizpean Elizpeko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte. Horrez gainera, Gazte Asanbladako kideek antolatuta, Elegante Eguna ospatuko dute.

Zapatuan, Mallabiko VII. Arda Feria egongo dute probalekuan, eta 14:30ean herri bazkaria egongo da. Gauean, Dupla, Unidad Alavesa eta Ezpalak taldeen kontzertuak egongo dira parkean.

Asteburuari amaiera emateko, frontenis maratonia, III. Autoen Slaloma, Kidam magoa eta mus txapelketa egongo dira, besteak beste.

## EAgora, komertzio, kultur eta kirol elkarten informazioa eskura

Katalunian sorturiko proiektua da. Abadiño Bizkaiko lehenengo herria da plataforma hau martxan ipintzen

### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

EAgora, Abadiñoko kultur eta kirol elkarten eta tokiko komertzioen informazio guztia eskura ipiniko duen plataforma martxan da gaurtik aurrera. Udaletik jakinarazi dutenez, eAgora udalen zein erakundeen beharrietara egokitzen da, izan tokikoak zein eskualdekoak.

Plataforma honek erabilera asko eskaintzen du. Esaterako, herritar, elkarte eta komertzioek herriko agenda eta udalaren zein eragile bakoitzaren jardura jarraitzeko balio du. "Bertan

agenda amankomun bat sortuko dute, eta edozein interesdun bere mugikorretik sartu ahal izango da herriko albisteak eta datozen ekintzak kontsultatzen", azaldu dute gobernu taldeko kideek.

Beste hainbat funtzioaren artean, elkarte eta komertzioek euren promozioen berri emateko aukera izango dute plataforman.

### 100 euroko zozketa

Bestalde, udaletik jakinarazi dute urriaren 31ra bitartean aplikazioa jaitsi eta Abadiñoko eAgoran sartzen direnen artean 100 euro zozkatuko dituztela, proiektuan izena emanda dauden komertzioetan erabiltzeko. Horrez gainera, azaroaren 15a baino lehenago izena eman eta 25 jarraitzaile lortzen dituzten elkarten artean 150 euroko donazioa zozkatuko dute.

## HILAREN 31RA ARTEAN APLIKAZIOA JAISTEN DUTENEN ARTEAN, 100 EURO ZOZKATUKO DITUZTE

## Abadiñoko Gaztetxea, 26 urte herritik eta herriarentzat

Asteburu honetan urteurren jaia ospatuko dute. Horretarako, hiru eguneko egitaraua antolatu dute

### Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Urriaren 23an, 26 urte bete dira Abadiñoko Gaztetxeak atek zabaldu zituenetik. Herritik sorturiko gunea izan zen, herriarentzat sortua. Eta orain, mende laurden geroago, Gaztetxeak bizirik jarraitzen du.

Urteurren eguna eguaztena izan zen arren, asteburu honetan egingo dituzte ospakizunak, hiru eguneko egitarauagaz. Gaur, urriak 25, 17:00etan, txokolata banatuko dute, eta 18:00etan umeentzako DJa egongo da, DJon. Ondoren, ping-pong txapelketa egongo da.

Bihar, urriak 26, urtero egoten den bizikleta martxa egongo da. 11:00etan hasiko da, Gaztetxetik bertatik. 14:30ean bazkaltzeko batuko dira, eta 18:00etatik aurrera karropoteoa egongo da. Gauerako kontzertuak antolatuko dituzte. 21:00etatik aurrera, Xu-

mel Getxoko laukotea eta Oñatiko Zentzu Okerra taldeko kideak igoko dira Gaztetxeko oholtzara. DJek emango diote amaiera gauari. DJ Mikerinos eta DJ Yiyi arituko dira musika ipintzen.

## EGUAZTENEAN, URRIAK 23, 26 URTE BETE ZIREN ABADIÑON GAZTETXEA ZABALDU ZUTENETIK

Urteurren asteburuari amaiera emateko, Abadiñoko artisauen azoka egongo da domekan, urriak 27. 11:00etatik 14:30era bitartean, Gaztetxe inguruan herriko artisau eta sortzaileen produktuak ikusi eta erosteko aukera paregabea egongo da.

# OSASUN GIDA

 **Podologia**  
PSE: 214/06


  
**Podinara Urreta Jainaga**  
OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK  
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13

NAIA ZABALA AUZMENDI 11587 kol. 28.  
  
**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA  
• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA  
• IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA  
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK  
• ORTO-KETA MIOPIAREN KONTROLA  
Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099  
www.keinuoportmetriazentroa.com

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**pröktós.clinic**  
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua  
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

  
**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia  
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Salo pertsonalizatuak dira, talde txikietan.  
Trañabarren 13, 4. blokea behe eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

  
**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia  
Muruetatorre, 2D DURANGO  
pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

  
**clinicadental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria  
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)  
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

*Aurora Julià*  
**HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA**  
Umeak - Helduak - Nagusiak  
Ordua hartzeko:  
**946 204 218**  
Txanporta Plaza, behe - Abadiño  
[www.aurorahomeopata.eus](http://www.aurorahomeopata.eus)  


 **Psikologia**

  
**gure**  
Zure bidelagun  
Haur, nerabe eta helduentzat  
Bikote-arazoak, antsietatea eta estresa, depresioa, eskola eta ikasketen zailtasunak, arreta gutxiarra, familia-arazoak, portaera-arazoak, estimulazio kognitiboa; oroimena, hitzuntza, arazoak logika, elikadura-portaera, diskalkulia eta dislexia.  
 **623 173 181 - 613 038 933**  
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

  
**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hortz klinika Durango  
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.  
Ordulegia:  
Astelohenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: hitzorduek hartuta  
944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)



# Zaldialdia egingo dute lehenengoz, Zornotzan

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zaldi sektoreko elkarte eta federazioek bat egin dute Zaldialdia azoka sortu eta elkarlanean "sektoreari bultzada eta ikusgarritasuna emateko"; Zornotzan egingo dute, domekan, urriak 27, 10:00etan hasita

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Azken hamarkadetan sortu, eta garatzen dabilen zaldi sektorea batu eta indartzeko asmoagaz, Zaldialdia azoka egingo dute domekan; egitasmoaren estreinakoa Zornotzan izango da. Zaldi azoka antolatu eta sektorearen aniztasuna bultzatu eta plazaratzeko asmoagaz antolatu dute azoka. "Bakoitzak bere esparrutik, baina denok gura dugu euskal arraza sustatu eta zaldien sektorea orokorrean indartu dadin. Elkarregaz lan eginda, sektoreari ikusgarritasuna eta hauspo handiago emango dizkiogu", nabarmendu du Osertz Lejarreta Zaldialdiako koordinatzaileak. Guztira, 120 animalia baino gehiago egongo dira ikusgai eta salgai; besteak beste, lehiaketako zaldiak, pottokak, Enkarterrietako astoak eta Euskal Herriko mendiko zaldiak. "Orain arte Euskadin ezagutu ez dugun azoka berri bat da Zaldialdia, eta luzaroan izango dugu hemen", azaldu du Lejarre-



Zaldialdiako eta udaleko ordezkariak.

tak. 10:00etan hasi eta 15:00ak arteko egitaraua prestatu dute bisitariarentzat zein streaming bidez jarraituko dutenentzat, eta, besteak beste, erresistentzia eta oztopo jauzi erakustaldiak, balorazio morfofuntzionalak eta moxal okelaren dastatzea izango dira bertan. Ainhoa Salterain

Zornotzako alkateak gogotsu hartu du Zaldialdia Zornotzan egiteko erronka. "Zaldialdia aukera paregabea da arraza autoktonoak berreskuratzeko lan egiten dabiltzanean balioa emateko eta espezie horiek gure eskualdeari ematen dioten aberastasuna erakusteko", adierazi du.



Hizkelan jardunaldian saritutako kideak, martitzeneko jardunaldian. HIZKELAN

## Euskara sustatzeagaitiko lana aitortu diote Ekin enpresari

Zornotzan kokaturiko enpresak urteak daramatza ikasketa egonaldietan ikasle euskaldunak hartzen

**Ekaitz Herrera** ZORNOTZA

Martitzenean Hizkelan topaketa egin zuten Zornotzako Lanbide Heziketa ikastetxean. Ekitaldian Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 130 eragiletik gora batu ziren, lan munduan eta LH ikastetxeetan euskararen normalizazioa bultzatzeko helburuz. Besteak beste, euskara gizarteratzeko gakoak, egungo hizkuntza eskakizunak eta Lanbide Heziketan eskaintzen diren euskara ikastaroen aletu zituzten. Bertaratuen artean, ikastetxeetako zuzendariak, irakasleak, enpresetako ordezkariak, hizkuntza zerbi-

tuetako teknikariak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak egon ziren. Azken horien artean, Hezikuntza Saileko Lanbide Heziketako sailburuorde Jon Labaka. Ekitaldian zehar Laneki sariak banatu zituzten, lantokietan euskara bultzatzen duten enpresen lana errekonozitzeko asmoz. Sarietariko bat Zornotzako Ekin enpresak jaso zuen. Bertako Miguel Angel Etxebarriak eta Agurtzane Guerediagak jaso zuten oroigarria. Ekinek urteak daramatza ikasketa egonaldietarako Lanbide Heziketako ikasle euskaldunak hartzen.

## Tasak eta zergak %2 igoko dira Elorrioren, KPlaren azpitik

Elorrioko Udalak 2025erako ordenantza fiskalen proposamena onartu du Ezohiko Osoko Bilkuran



Eguazteneko udalbatza.

**A. M. ELORRIO**

EH Bilduren aldeko botoekin eta Podemosen abstentzioagaz, Elorrioko Udalak 2025erako ordenantza fiskalen proposamena onartu du. Udalaren berbetan, gai bik baldintzatu dute proposamena: bizitzaren kostuaren igoerak eta hondakinak biltzeko zerbitzuaren zero defizitari buruzko legezko eskakizunak. Horrela, tasak eta zergak "orokorrean" %2 igoko dituztela azaldu du udalak ohar baten bitartez, KPIaren aurreikuspenaren azpitik, beraz. Aldaketarik esanguratsuena hondakinen bilketa, garraio eta kudeaketa tasarena da, 7/2022 legera egokitzearen ondorioz. "Ez da igoera orokor bat aplikatuko pertsona edo negozio guztientzat; zergadun motaren arabera igoko dira tarifak", argitu du Elorrioko Udalak.

## Aldundiaren 900.000 euro baino gehiagoko inbertsioa BI-633an

Bizkaiko Foru Aldundiak BI-633 errepideko puntu bitan egingo ditu lanak, Berrizen eta Berriatuan

**A. M. BERRIZ**


Bizkaiko Foru Aldundiak ezponda bat eta horma bat konponduko ditu BI-633 errepideko puntu bitan, eta ia 1.000.000 euro inbertituko ditu lan horietan. Berrizen, 80 metro luze eta 10 metro garai den horma batean egingo ditu lanak; egindako ikuskapenetan, horma "lekuz aldatu dela" azaldu du Aldundiak ohar batean, eta lokarriek "gehiagizko esfortzua jasan" dutela. Hori dela eta, ainguraketa berriak ipiniko dituztela azaldu dute, eta oinarrian hormigoizko lotzeko habe bat.

Lanen zati honetarako, 660.463 eurokoa da aurrekontua, eta konponketak egiten 15 aste egongo direla aurreikusten dute. Lanekin, puntu hauek "zeuden moduan" uztea gura du Aldundiak, pertsona zein ibilgailuen segurtasuna bermatzeko. Berriatuako lanetan, Artibai ibaiaren higadura-efektuagaitik askatu den horma batean egingo dituzte lanak, 40 metroko luzeran, ezponda egonkortzeko, euste-sistema berrezartzeko eta hormaren aurrealdea higaduratik babesteko dituen ingurumen neurriak ezartzeko.



# Oraindik ez zara ANBOTOko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken  
albisteak jaso gura  
badituzu batu **Anbotoko**  
**whatsapp** kanalera



**Eskaneatu**  
**QR kodea:**




\* Izan zaitetz berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak



**anboto  
kide**

Anbotokideen  
txokoa

**URRIKO ZOZKETAK**



**Xiberu tabernan**  
bi gosari bikoitz. Zornotza.



**Aukan izozkiak.**  
6 izozki edo etxera eramateko  
1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



**Errigoraren eskutik**  
Euskal Herriko produktuen otzara.

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman  
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



Zabor bilketaren gaineko tasa nabarmen igoko da 2025ean.

## %40 igoko da zabor, hondakin eta lurzoru kutsatuen tasa

Iurretako Udalak indarrean sartuko den legedia betetzeko hartu du erabaki hori; gainerako tasak %2,5 igoko dira

**Aitziber Basauri** IURRETA

Iurretako Udalak 2025erako ordenantza fiskalak onartu ditu asteon. Orokorrean, %2,5 igoko dira udal zerbitzu eta jardueren gaineko tasak. Zabor, hondakin eta lurzoru kutsatuen gainekoa ezik. Tasa hori %40 igoko dute. Hiru hilean behin, 5-6 euroko igoera ekarriko du. "2025ean indarrean jarriko den legediaren arabera, hondakinen bilketa eta kudeaketa kostuak zaborra biltzeko zerbitzuaren gaineko tasagaz estali beharko lirateke. Eta sorturiko hondakinen araberako tasa ordaindu beharko litzateke.

Gaur egun, zerbitzuari lotuta ditugun diru sarrerak ez dira nahikoa horretarako", azaldu du Oskar Koka alkateak. Bada, "ekonomia zirkularra lortzeko eta gehien sortzen duenak ordaintzen duen eredu baterantz aurrera egiteko" erabaki dute igoera. EAJk eta PSE-EEK aldeko botoa eman dute. EH Bildu abstenitu egin da. Alkatearen berbetan, "pertsonek ongizatea eta zerbitzuen kalitatea lehenetsi" dute, "iraunkortasuna eta ingurumen ikuspegia kontuan hartuta". Ordenantza fiskalek hainbat hobari dutela gogoratu du.

## Arimen Gaua ospatuko dute Otxandion, urriaren 31n

Kalabazak husteko eta aurpegia margotzeko tailerrekin hasiko dute prestatu duten egitaraua, 17:00etan

**A. Basauri** OTXANDIO

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatuko dute Otxandion. Hildakoen gaua irudikatzeko, arropa aproposa jantzita egingo dute, gainera. Etxean aurkitutako arropa zaharrekin irtengo dira kalera, udalak eskolagaz egingo deiarri erantzunez.

Kalabazak husteko tailerragaz eta aurpegi margoketaz hasiko dute eguna, 17:00etan. Ondoren, 18:00etan, ipuin kontalariren bila joango dira, herriko txoko eta bazterretatik. Aurkitzen dutenean, ipuin kontaketa ha-

siko da. Gero, 19:30ean, bere ikuskizuna egingo du plazan, eta ondoren gaztaina erreteko aukera egongo da, Jubilatuen elkartearen eskutik.

**Kalabaza bilketa**

Urriaren 28tik 30era batuko dituzte kalabazak, plazan. "Guraso Elkartearen laguntzagaz, hustutako kalabazak haziak gordetzen ditugu, herritarren artean banatzeko. Hazi horiek erein eta baditugu kalabazak hurrengorako", azaldu du Maider Arejolaleiba zinegotziak.

## 'Goiuria oinez' ibilaldi gidatua egingo dute zapatuan

Iurretako auzoko sekretuak azalduko dituzte, Europako Ondare Jardunaldien barruan

**A.B. IURRETA**

Iurretako Goiuria auzoko sekretu eta datu esanguratsuak ezagutzeko aukera egongo da zapatuan. Europako Ondare Jardunaldien barruan, udalak eta Gerediaga elkarteak *Goiuria oinez* ibilaldi gidatua antolatu dute. Ibilaldia Goiuriako ermitaren ondoko aparkalekuan hasiko da, 11:00etan.

"Garai batean oso garrantzitsua zen Gaztelako goi lautada eta Kantauri itsasoa batzen zituen bidea. Iurretako Montoi inguruan Ibaizabal erreka gurutzatu, gaur egun Bixente Kapanaga izenez ezagutzen dugun kaletik igaro eta Iurretako plaza ingurutik Goiuriara igotzen zena", azaldu dute antolatzaileek. Bada, bide hori eta inguru horretako harrobiak eta auzoko ermitaren sorrera hartuko dituzte berbegai, besteak beste. Izena emateko: [ejardunaldiak@gmail.com](mailto:ejardunaldiak@gmail.com) helbidean edo 94 681 80 66 telefonoan.

## Trumoitte elkartea pozik egunotako gaztaina bilketagaz

**E.H. GARAI**

Trumoitte elkarteko kideak pozik daude urriaren 6an gaztainak batzeko helburuz egindako txangoak utzitakoagaz. "Gaztaina bilketa oso ondo joan zen. Jende dezente etorri zen irteerara, eta hiru kaxa bete genituen", azaldu du Alazne Sarrigoitia elkarteko kideak. Gaztainok Urresti eta Tromoita aldean batu zituzten, eta izoztu egin dituzte azaroaren 16ko gaztainerre egunera arte. Egun horretan, 17:00etan egingo dute gaztainerrea. Umeen jolasak ere izango dituzte. Baina lehenago, azaroaren 10ean, beste baso irteera bat egingo dute. 10:30ean irtengo dira plazatik.



# Atxondon Olazabal auzoko auzo bidea asfaltatu dute

Atxondoko Udalak Olazabal auzoko auzo bidea asfaltatu du. Joan zen astean hasi zituzten lanak, eta astean amaitu dituzte. Horrela, udan egindako auzo batzarretan herritarren partetik irtendako eskaera bati irtenbidea eman diote udaletik

**J.D. ATXONDO**

Atxondon, udalak Axpe inguruko Olazabal auzoko auzo bidea asfaltatu du. Aurreko asfalto zaharkituta zegoen; esaterako, han-hemenka zuloak zituen. Horregaitik, auzo bidea berriztea erabaki dute. Horregaz batera, bide ondoko ur bideak ere konpondu dituzte. Joan zen aste erdian hasi zituzten lanak, eta aste honetan zehar amaitu dituzte. Atxondoko Udalak 28.120 euro inbertitu ditu proiektua gauzatzeko.

## Herri batzarreko eskaera

Udalak hainbat auzo batzar egin du Atxondoko auzotarrek, auzorik auzo dauden beharriak bertatik bertara ezagutzeko, eta horietariko batzar batean plazaratu zen Olazabaleko auzo bidea eraberritzeko premia. Aurrera begira, apurka-apurka beste auzo bide batzuk konpontzeko asmoa erakutsi dute udal arduradunek.



Olazabal auzoa asfalto berriagaz.

## 2025eko ordenantza fiskalak onartu dituzte

Aho batez atera dituzte aurrera. Zerga eta tasarik gehienak bere horretan mantenduko dituzte

**J.D. ATXONDO**

Atxondoko Udalak ezohiko bilkura egin zuen joan zen barikuan, eta bertan 2025era begirako ordenantza fiskalak onartu zituzten aho batez, udalbatzarra osatzen duten alderdi guztien aldeko botoagaz. Tasa eta zergarik gehienak izoztu egin dituzte, bi izan ezik: zaborren eta estolderiaren inguruko tasak %3 igoko dira. Bietan KPIaren —kontsumo prezioen indizea— arabera igoera aplikatu da.

Horrez gainera, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zergako puntu bat moldatu egin dute datorren urteari begira. Orain arte, 25 urte edo gehiagoko ibilgailu guztiek hobaria zuten. Aurrerantzean, urte kopurua ez da nahikoa izango; hau da, ibilgailuak, %50eko hobaria eskuratu ahal izateko, Ibilgailu Historikoen Araudiaren arabera historiko gisa sailkatuta egon beharko du.

## Atxondon herri batzarrera deitu dute martitzenerako

Gai bi jorratuko dituzte: Markoidako proiektua eta AHTko arduradunekin izandako hartu-eman

**J.D. ATXONDO**

Atxondoko Udalak herri batzarrera deitu ditu herritarrak, urriaren 29rako. 19:00etan izango da, Apatako eskolako erabilera anitzeko gelan. Bertan, gai garrantzitsu bi jorratuko dituzte: Markoidako proiektua eta AHTko arduradunekin izandako hartu-eman.

Udalak gai bien inguruko informazio osatua eta gaurkotua eskaini gura die atxondarrei, gero euren ikuspuntua zein den jakiteko, udaletik jakinarazi dutenez. Batetik, Markoidako proiektuari buruz arituko dira. Auzo inguruko lurzati batean industrialde bat egitea aurreikusita dago. "Udaleko ardura hartu zuenetik hona, gobernu talde honek herriaren eta herritarren onerako hobekuntzak lortzeko lan egin du", azaldu dute. Bestetik, AHTa egiteko ardura duen Adif enpresagaz izandako hartu-emanen berri emango dute.

## Mañarian misterioz beteriko Arimen Gaua ospatuko dute

Kafraga kultur elkarteak euskal tradizioari loturiko ospakizuna egingo du, lehenengoz, datorren egunean

**J.D. MAÑARIA**

Urriaren 31n Arimen Gaua ospatzeko ohitura oso zabaldua zegoen Euskal Herriko txoko askotan orain hamarkada batzuk. Iluntzean, haur eta gazteek eske errondak egiten zituzten, neguan ospatzen diren beste jai ezagunetan legez. Gerora, Halloween eredu estatubatuarra euskal tradizioari gailentzen joan zaio apurka-apurka. Horiek horrela, Mañarian bertoko usadiora bueltatzeko ahalegina egingo dute aurten, datorren egunerako Arimen Gaua antolatuta. Umeei

zein gazteei zuzenduriko ekimena da eta Kafragako kideek bertaratzeko deia egin diete herritarrei.

### Hainbat ekimen

Kafraga elkarteko gazteek antolaturiko ekimenak hainbat osagai izango du. 18:30ean, makillaje eta ile-apainketa tailerra egongo da plazan. Ondoren, 20:00etan, txistor-jana egingo dute plazan. Tripa ondo bete eta gero, Arimen Ibilaldia hasiko da. Misterioari eusteko, sekretupean daude ibilbideko



Apainketa tailerra eta txistor-jana plaza inguruan izango dira.

nondik norakoak, baina "sorpresa bat baino gehiago" egongo dela aurreratu dute. Ibilaldia amaitzen denean, Mañariko liburutegi zaharrean batuko dira denak, *Coco* fantasiako animazio filma ikusteko.

Kafraga elkartekoek Arimen Gaua antolatzen duten lehenengo aldia da aurtengoa. Elkarteko gazteek esan dute gogotsu daudela ekimenak antolatzeko, eta ahalegina egiten dabilzala horri bidea egiteko.

## Izurtzako Korrala gunean ikastaro berria, azaroan

**J.D. IZURTZA**

Izurtzako Korrala Sormen Gunean ikastaro intentsibo berri bat egingo dute azaroan. Ganso&Cia konpainiak antolatuko du eta lau egunez egingo dute: azaroaren 5etik 8ra, 09:30etik 14:00etara. Inprobisazioan eta clownaren ezagutzan sakontzen jarraituko dute, *Imbecilidad* deitu dioten ikastaroan. Clown munduan aditua den Pep Vila katalanak emango du ikastaroa. Ekimenari buruzko informazio sakonagoa [korralla@ganso.info](mailto:korralla@ganso.info) helbide elektronikoan eskuratu daiteke. Datorren urtera begira, clownaren inguruko beste ikastaro bi aurreikusita dituzte, martxoan eta apirilean.





Zaldibarko elkarretaratzea.

## Elkartasuna Palestinari

Asteon Abadiñoko, Atxondoko, Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Iurretako eta Zaldibarreko hainbat herritarrek bat egin dute Gernika-Palestina dinamikak deituriko elkarretaratzeagaz. Eta sindikatuek eta eskualdeko hezkuntzako komunitateko kideek ere bat egin dute deialdia-gaz. Elkarretaratzeak palestinar herriari elkartasuna adierazteko izan dira.

**HERRIAREN ESKUBIDEA**  
POLITIKAN  
HERRIAREN ESKUBIDEA - INDEPENDENTEA

## Marra gorriak

EAJk eta PSOEek, gutxi aplikatu den ikasle batek bezala, ez dituzte etxeko lanak egin, ez dute jaramonik egin eta "bihar egingo dut" maximoa aplikatu dute. Zer aldatu da Pradalesekin? Ba ezer ez, oporretara joan dira ezer egin gabe.

Hauteskundeekin iristen diren promesak bete beharrean, ikusten dugu zerbitzuak gero eta okerragoak direla, eta marra gorriak ere pasatzen direla. Adibidez, ambulanziarik gabe pasatzen ditugun egun guztiak; edo mediku bakar batekin Durangoko larrialdietan, izan behar eta lituzkeen 3 egunen ordez. Azken urteetako murrizketek eta pribatizazioek egoera larrian utzi gaituzte, eta jendeak kalera atera behar izan du osasun publiko duina izateko eskubidea eskatzeko. Durango, Berriz, Zaldibar, Garai... lehen mailako arretako medikurik gabe. Itxaron-zerrendak haziz doaz, hilabete familiako medikuarentzat eta urtebete baino gehiago espezialitate batzuentzat. Eta geratzen diren langileak, ahalik eta zerbitzu duinena eman nahian, askotan beren osasunaren kontura.

Aitzakiatzat jarri digute Euskadin medikurik ez dagoela. Hala ere, 2011tik, mediku elkar-gokideen eta erizainen kopurua %30 igo da. Eta apurka-apurka, aitzakiaz aitzakia, helburua lortzen ari dira, milioi erdi euskaldunek baino gehiagok aseguru pribatua dute.

## DURANGALDEA ASTEON

### 'Argitu, ez suntsitu' biltzarra antolatu dute

**DURANGO** Iruña-Veleia plataformak *Argitu, ez suntsitu* biltzarra antolatu du, laugarrena. Durangoko Landako Elkartegian izango da, urriaren 26an. Egun osoko jardunaldia antolatu dute; 09:30ean hasi eta 19:30ean amaituko da. Hainbat hizlari egongo da; tartean, Eliseo Gil arkeologoa. Izena eman beharko da bertan parte hartzeko, [irunaveleiamartxan@gmail.com](mailto:irunaveleiamartxan@gmail.com) helbidera idatzita.

### 'Gurot' euskal tribial lehiaketa, martxan

**DURANGALDEA** GUROTek, euskarazko kultura unibertsala eta euskal kultura sustatzen dituen aplikazio interaktiboak, 12tik 18 urtera bitarteko gazteei zuzenduriko Banakako Lehiaketa berria hasi du. Aurten guztiz berrizitutako plataformak diseinu erakargarriagoa eta erabilerrazagoa du, eta Bizkaian erreferente modura finkatzen da 14 udalerrri eta mankomunitateren parte hartzeagaz.

### Mikologia jardunaldiak, urriaren 26an eta 27an

**ZORNOTZA** Urriaren 26an eta 27an, Zornotzako Mikologia Elkarteak antolaturiko XXXIII. Mikologia Jardunaldiak hartuko ditu Zornotzak. Zapatuan, 08:00etan, mendira irteera egingo dute Zubiondo Plazatik hasita, perretxikoak batzeko. Domekan, 10:30ean, perretxiko eta argazki erakusketa hasiko da Zelaieta zentroan. Ondoren, pintxo dastatzea egongo da.



AINHOA IRAOLA

### Sarrionandiaren bigarren saioa Atxondon

**LITERATURA** Joseba Sarrionandiak Atxondoko liburutegian gidatzen duen irakurketa klubeko bigarren saioa datorren astelehen arratsaldean izango da. Ekimenak oso harrera ona izan du eta izen ematea beterik dago. Bigarren saioan, euskararen ahozkotasunetik idatzirako bilakaera izango dute hizpide; XX. mende hasierako testu batzuk landuko dituzte. Hurrengo saioa abenduaren 16an izango da.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:  
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTÖren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

# anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

**Bixente Kapanaga, 9**  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.500 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# DOMU SANTU EGUNA 2024





# "Apurka-apurka doluaren tabuak ezabatzen gabiltza"

MAIDER DEL RIO LARRAMENDI PSIKOLOGOA

Dolua bizitzeko moduak izandako aldaketa aukera ona dela uste du Maider del Rio: "Dolua bizitzeko modu guztiak dira egokiak, eta bakoitzak ahal duen moduan darama"



Maider del Rio, Adeituko bulegoan.

**Aritz Maldonado** DURANGO

Dolu prozesua asko aldatu da azken urteetan, Maider del Rio psikologo elorriarraren ustetan. Pertsona bakoitzak bere erara bizitzen duela nabarmendu du Adeitu zentroko kideak, oraindino gehiago gaur egun. "Dolua bizitzeko modua guztiz aldatu da azken urteetan; lehen zerbait soziala zen, eta orain ez da hain zurruna. Ondo dago erritualei jarraitzea, baina ez jarraitzea ere ondo dago", argitu du.

**Zelan eragiten dute horrelako egunek dolu prozesuetan?**

Prozesuaren zein momentutan zauden araberakoa izaten da hau. Egun bereziak izaten dira; adibidez, gabonak ere izaten diren moduan. Euskal Herrian gabonek ezaugarri berezi batzuk dituzte, aulki hutsak geratzen dira etxe batzuetan, eta egoera hori zelan kudeatu izaten da kontua. Gabonetan hain argi ikusten den egoera hori Domu Santu egunean oso erraza zen kudeatzeko. Zer egin behar genuen? Loreak erosi, hilarria garbitu, eta egun horretan loreak eraman. Urtero errepikatzen zen erritual bat zen eta erri-

tualek erraztu egiten dituzte prozesu hauek. Baina, gaur egun, erritual hori ez da hain erraza, ohiturak aldatu egin ditugulako. Erraustak baserrian, etxean... dolu bizitzeko modua ere guztiz aldatu da. Orain ez da horrenbeste lore eramaten hilerrira; egongo da etxean kandelatxoak ipintzen dituen jendea, beste batzuk ibilaldi bat egiteko geratzen direnak leku zehatz batera... Batzuetan horrelako erritualek lagundu egiten dute, baina nire ustez argi geratu behar da erritual horiek egitea ondo dagoela, baina egiten

ez badira ere ondo dagoela. Ez da derrigorrez egin behar den zeozer. Lehen zerbait soziala zen, horrela izan behar zuen, eta gaur egun jada ez da hain zurruna. Asko aldatu da. Hortaz, batzuei lagundu egiten die egun berezi bat edukitzeak, gauza konkretu bat egiteko; beste batzuek, oster, gurago dute beste modu batean egin, gurago dute urtebetetze edo urteurrenen batean gogoratzea.

**Erritual bat edukitzeak, baina, lagundu egiten du?**

Bai, agurtze prozesuetan erritual bat edukitzeak lagundu egiten du. Baliteke orain erritualek berdinak ez izatea. Elizkizuna da errazena, ez dugulako ezer pentsatu behar: sekulako mina dugu eta ez dugu ezer pentsatu behar, dena antolatua dagoelako. Bestela, guk hasi behar dugu dena antolatzen, eta baliteke horretarako indarrak ez izatea. Baina, bai, erritualek beharrezkoak dira, eta garrantzitsuak agur esateko prozesuetan.

**Heriotza tabua izan da urte askoan. Horrela izaten jarraitzen du?**

Badoa aldatzen. Heriotza urte askoan izan da tabua, eta baita heriotza zelakoa izan den ere; adibidez, suizidio bat izanez gero, tabua goitik beherakoa zen. Apurka-apurka hori aldatzen dabil. Adibidez, suizidioaren kasuan, familientzat mingarria zen tapatu beharra eta gaiari buruz berbarik ez egitea. Oraindino bidea geratzen zaigu egiteko, baina apurka-apurka bagoaz tabu batzuk ezabatzen, eta hori garrantzitsua da. Berba egin behar da, dena delakoari buruz. Zerbaiti buruz berbarik ez egiteak edo estali gura izateak gogortu egiten du egoera. Doluari edo pertsonari buruz berba egitea garrantzitsua eta onuragarria izaten da dolu hori errazago

egiteko. Adibide bat jartzearen, semea edo alaba hil zaien guraso batzuekin elkartzean zer esan edo zer egin jakin barik geratzen gara, eta ihes egiten ahalegintzen gara. Ez ez dugulako pertsona horiekin egon gura, egoera hori zelan kudeatu ez dakigulako baino; ondorioz, galera sufritu duen pertsona horrek bazterketa sentitu dezake. Horregaitik ere garrantzitsua da berba egitea, erosoago zelan egon gaitzkeen jakin dezakegula horrela, bai doluan dauden pertsonak bai ingurukoak.

**Beste zerk lagundu dezake?**

Prestutasuna erakusteak. Gerta daiteke doluan dauden pertsonak batzuetan berba egiteko prest edo gogotsu egotea, eta beste batzuetan ez. Dolua ez da zeozer jarraia, ez da egoera bat, prozesu bat baino. Doluan dagoen pertsona bat egon daiteke kalean zeozer hartzen, irribarretsu, eta hamar minutura negarrez, zeozerk zeharkatu edo ikutu delako. Doluak fase batzuk ditu, prozesu bat den neurrian, eta batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago egon zaitezke. Lasai hartu behar da, eta pertsona horren alboan egon behar da. Garrantzitsua izan daiteke, baita ere, pertsona horri deitzea. Askotan errepikatzen den egoera izan daiteke, 'gura duzunean deitu' esatea. Disponibilitatea erakustea garrantzitsua da, eta baita hori keinuekin laguntzea ere: 'prest nago entzuteko' esanda, adibidez.

**"LEHEN, DOLUA ZERBAIT SOZIALA ZEN, ETA GAUR EGUN DOLUA BIZITZEKO ERA EZ DA HAIN ZURRUNA"**



## ZELAI ATXITXE

HILARRIAK · KANPOSANTUKO LANAK

Loreontziak, gurutzeak, hainbat neurritako zutabeak, kapitelak, jardinerak, balaustreak. Marmolez eta granitoz.

ZELAI - MALLABIA  
zelai@atxitxe.net Tel.: 656 706 468 / 656 706 467





**Zer da dolua?**

Pertsona batek bizi duen prozesu emozionala da dolua, maite duen pertsona bat hil ondoren, harreman bat hautsi ondoren, lan bat galdu ondoren, egoera jakin bat galdu ondoren edo bizitzan zehar maitatutako edo idealak diren objektuak galdu ondoren bizitakoa.

Prozesu pertsonala da, eta pertsona bakoitzak modu batean bizi du, iraupenaren eta intentsitatearen arabera. Galera nolakoa izan den ere badu eragina. Pertsona bakoitzak era batera egiten du dolua.

Artikulu honetan, gertuko lagun baten, senide baten edo bikotekidearen galera onartzea zein mingarria izan daitekeen aztertu nahi dugu, maite dugun pertsona baten heriotzak oso min sakona eragin baitezake.

Nahiz eta badakigun galerak eta heriotza bizitzaren zati natural bat direla, minak, batzuetan chocak, inpaktuak eta nahasmenduak tristura prozesuak eragin ditzakete.

**Zer sentitzen da?**

Lehenago edo geroago, denek egiten diogu aurre maite dugun pertsona baten heriotzari, eta, egia esan, inor ere ez dago horretarako prest. Liburu gehiago idatzi eta aholku gehiago ematen badira ere—lagungarriak dira, noski—kolpe latza da denbora partekatu dugun hurbileko pertsona bat galtzea, gure bizitzan ezinbestekotzat jotzen dugun pertsona bat galtzea.

**Nola bizi dolua?**

Inori ez zaigu gustatzen horrelako egoera bat bizitzea, baina une hori beharrezkotzat hartzea lehen urratsa da galera hori onartu eta bizitza egokitzeke.



Iratxe Sanchez Hernaiz, Hegoak Klinikako psikologo sanitarioa.

## Dolua helduengan eta haurrengan: nola eraman galera bat eta nola irten aurrera

Hain data seinalatuetan, gure lagun eta senide maiteen heriotzaren urteurrena ospatzen dugun honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu doluaren gaia jorratzea

Aldiz, gustuko ez dituzten emozioetatik—tristura eta haserrea, adibidez—ihes egiten dutenek baliteke etorkizunean dolu hori berriro bizitzea.

Doluak gure bizitzako uneraren bat ixteko, galera barneratzeko eta beste fase batera bideratzeko balio digu. Pertsona askori deseroso sentiarazten die une honetan sortutako emozioak, eta azkar pasatu nahi dute, baina hori akatsa litzateke, errealitate berri batera egokitzeke denbora behar baita beti. Beraz, une latz hau iritsitakoan, lehe-

nik eta behin dolu hori onartu behar da, eta ez ihes egin.

**Nola jarraitu bizitzarekin?**

Galera gainditzeko, badakigu denbora behar dela; horregatik, hona hemen baliagarriak izan litezkeen orientabide batzuk:

Zure gertuko pertsona maitatuaren heriotzari buruz **lagunekin edo hurbileko pertsonekin hitz egiteak** zer gertatu den ulertzen eta bera gogoratzen lagun diezazuke.

**Sentimenduak onartzea.** Zaila da hain emozio mingarriak

onartzea, eta, horregatik, har ezazu behar duzun denbora, doluek beren prozesua dute eta edozein sentimenduk balio du.

Une honetan, **norbera eta ingurukoak zaintzea** ez da erraza, baina ondo jateak, ariketa egiteak eta atsedean hartzeak ere lagunduko du egunerokotasuna gaintzen eta aurrera egiten.

**Galdu dugun gertuko pertsona baten bizitza gogoratzea eta ospatzea**, unea iristen denean, prozesua luzea izan baitaiteke, baina pertsona hori gogoratzeak, oroitzapenak partekatzeak eta ospatzeak ere sentiaraziko dizu guztiak zentzu handiagoa duela.

Emozioek abailtzen zaituztela edo gainditu ezin dituzula sentitzen baduzu, agian psikologo gisa gaitutako osasun mentaleko profesional batekin hitz egiteak zure sentimenduei aurre egiten eta aurrera egiteko norabidea berreskuratzen lagunduko lizuke.

**Nola lagun dezakete psikologoek?**

Terapian espazio segurua duzu sentimenduak eta emozioak adierazteko.

Zure psikologoak emozio horiek identifikatzen eta ulertzen lagunduko dizu, hala nola tristura, haserrea edo errua, eta doluari aurre egiten lagunduko dizuten estrategiak prestatuko dituzu.

Espazio terapeutiko batera joatea pentsatzen ari bazara, helduekin terapian eta doluan adituak diren psikologoak ditugu Hegoak Kliniketan.

**Haurrak eta dolua. Nola lagundu?**

Maite dugun pertsona baten heriotzari aurre egiten laguntzea

enpatia eta ulermena eskatzen dituen prozesu delikatu da.

Haurra sufrimendutik urrutzeak eta/edo heriotza ezkutatzek nahasmena eragingo dute adingabearengan, ezin izango baitu ulertu maite duen pertsona ez dela itzuliko.

Zuen seme-alabekin, ilobekin eta abarrekin lagun diezazueketen orientabide batzuk utziko dizkizuet:

**Argi eta garbi hitz egitea:** Adingabeari bere sentimenduak eta galderak adierazten uzteak beldurra eman diezazuke, baina zintzotasunetik hitz egiten baduzu, bere adinarekin bat datorren hizkuntza erabiliz, bete-betea asmatuko duzu.

**Bere sentimenduak baliozkotzea:** Badakit ez dela une erraza eta zuk zeuk ere ez duzu hitz egin nahi izango nola sentitzen zaren, baina zure alabak edo semeak jakin behar du ez dela ezer gertatzen trite edo haserre sentitzeagatik, horrek egoera hobeto ulertzen eta gainditzeko lagunduko baitie. Emozionalki presente egotea bezain garrantzitsua da maitasuna ematea, besarkadak ematea edo, besterik gabe, hurbil egotea. Horiek denak dira lagungarriak.

**Oroitzapenak partekatzea:** gertuko pertsona horrekin bizi izandako une zoriontsuei buruz hitz egitea lagungarria izan daiteke bere oroimena bizirik mantentzeko.

Prozesuak gainezka egiten dizula sentitzen baduzu, kezkatzen zaituen gairen bat badago, ez izan zalantzarik eta etorri haurtzaroan eta doluan aditua den psikologo profesional batengana. Hegoak Kliniketan emakume psikologo talde bat dugu zuei laguntzeko.



**Clínica HEGOAK**  
Atención Infantil, Juvenil y adultos

Zure osasun mentala zaintzen dugu.  
Zu zaintzen zaitugu.

688 84 44 15 / 94 405 32 90

info@clínicahegoak.com clínicahegoak.com

**Clínica HEGOAK**

- Arrata goiztiarra
- Haur eta gazteen psikologia
- Fisioterapia pediatrikoa
- Haurren neuropsikologia
- Psikomotrititatea
- Logopedia



# "Organistok geroago eta lan gehiago izaten dugu"

**JOSE ANTONIO URIARTE BUSTINZA ORGANISTA**

Jose Antonio Uriarte (Zamudio, 1973) Durangaldeko elizetako organistetariko bat da. Azken bost urteetatik hona Mallabiko eta Berrizko hileta elizkizunetan jotzen du

**Ekaitz Herrera ELIZKIZUNAK**

Bost bat urte dira Mallabiko eta Berrizko hileta elizkizunetan organoa jotzen hasi zela. Laster, Urkiolako santutegiko organoa jotzeko aukera izango du. ANBOTO Berrizko elizako organoaren parean batu da Uriartegaz.

**Beraz, zu zaitugu Durangaldeko elizetako organistetariko bat.**

Eskualdeko herri txikietako elizetan jotzen dut. Normalean, Berrizko, Mallabiko eta Ermuko elizetan. Noiz edo noiz Berrizko mojen komentuan jo dut, eta laster Urkiolako santutegian jotzeko aukera izango dut. Oraindino ez naiz hasi, baina horretarako eskaria egin didate.

**Zer elizkizunetan jotzen duzu?**

Normalean hiletetan, eta batzuetan jai berezietan. Adibidez, nire sorterriaren inguruko herrietan, Zamudion, Lezaman eta Mungialdean, elizari loturiko ospakizunetan jotzen dut. Durangaldeari dagokionez, hiletetan eta herrietako jai nagusietan jotzen dut. Adibidez, abuztuko Andra Mari egunean Mallabian egoten naiz.

**Organista asko zaudete Bizkaian?**

Oso gutxi, eta geroago eta gutxiago gara. Izan ere, organista asko adinekoak dira. Eta geroago eta gutxiago direnez, gaine rakook lan gehiago dugu. Berrizko organistaren hileta elizkizun-



Jose Antonio Uriarte, Berrizko elizako organoaren aurrean.

nean (Balendin Lasuenen hiletan) ni neu izan nintzen organista. Bera hil baino hile bi lehenago hasi nintzen Berrizko hiletetan jotzen. Mallabiko organista ere famatua izan zen, Emilio Pradera. Mallabiko organoari buruzko ikerketa egin zuen. Hain zuzen ere, Mallabikoa da Bizkaiko organorik zaharrenetariko bat.

**Mallabikoa Bizkaiko zaharrenetariko bat?**

Bai, hala da. Zaharrena Ziortzako monasteriokoa da (Ziortza-Bolibar). Mendatakoa ere zaharre-

netariko bat da, baina guztiz deseginda dago. Eta Ermukoa izugarri organo ederra da, itzela. Baina gerra sasoiaren haren parte bat txatarra modura saldu behar izan zuten, janaria erosi eta goseteari aurre egin ahal izateko. Alzaria eta tutu batzuk elizan daude oraindino, baina Ermuko hiletak organo elektronikoz bategaz laguntzen ditugu.

**Zenbat urte daramatzazu organoa jotzen?**

38 urte. Niretzat afizioa da, beste musika tresna guztiak bezala.

Gustuko ez baduzu, ez zara musika tresnarik ikasten tematuko. Gurea oso familia arrunta izan da. Baserrikoak izan gara, baliabide gutxi izan dugu, herri-gunetik urruti bizi izan gara. Eta, halako batean, pianoa jotzen zekien lagun bategaz hasi nintzen ibilbidea egiten. Herriko organistak materiala uzten zidan, praktika nezan, eta, gero, solfeoa ikasi nuen txistua jotzen ikasi ahal izateko. Ikasketa prozesua era autodidaktikoan garatu dut, ordu asko sartuta.

**Domusantu eguna eta hileta elizkizunak tristeziak bizitzen diren erritualak izaten dira. Urteak igaro ahala, organista egoera horietara ohitzen ote da?**

Hiletak eta hiletak daude. 38 urte hauetan zehar, oso hileta latzen lekuko izan naiz. Ume txikien heriotza, istripuz hildako gazteak, bat-bateko heriotzak... Adinekoren baten hileta ere beti da tristea, baina herri-tarrak beste aldarre batez etortzen dira elizkizunera. Gogoan dut behin auto istripuz hildako 16 eta 17 urteko hiru gazteren hiletan jo behar izan nuela organoa. Oso gogorra izan zen. Abadeari berari ere gatz egin zitzaion mezan aurrera egitea. Beraz, ohitu egiten ote garen? Hileta batzuetara ez dago ohitzerik. Kasuak eta kasuak daude.

**Zelan prestatzen dituzu hileta elizkizunetan jo beharreko piezak? Zer aurre-lanketa dago?**

Normalean parrokiak berak erabakitzen du zer jo eta zer abestu. Bizkaia txikia da. Badira parrokia guztietan abesten diren kantak, baina, horiez gainera, parrokia bakoitzak bere kanta bereziak izan ditzake. Berrizen, adibidez, *Goizian argi hastian* izaten da sarrerako

abestia. Kanta hori hemen, Berrizen, eta Iurretan baino ez dut entzun. Andikonako Amak bere ereserki propioa du, eta, hemengoa denez, hemen baino ez da kantatzen. Mallabian, *Mallabiko Ama* dago, han bakarrik abesten dena. Normalean, emailer bidaltzen didate zer jo, elizkizun bezperan.

**Elizkizun batean denek entzuten dute organoaren doinua, baina gutxi ikusten dute organista lanean. Zuen lana behar den beste eskertzen ote da?**

Bai. Herriarrek asko eskertzen dute gure lana. Asko zoriontzera etortzen dira, asko gustatu zaiela esatera, eta inoiz opariren batez ere etortzen zaizkigu. Jendea oso eskuzabala izaten da. Hileta batean, adibidez, familiak zeozer berezia jotzeko eskatu diezazuke. Jakina, momentu gogorra izaten da eurentzat, eta guk, ahal dugun neurrian, min hori arintzen laguntzen diegu, haiek jotzeko eskatu diguten pieza interpretatuta.

**Organoa jotzeak zer ematen dizu zuri?**

Asko ematen dit. Umea nintzeanean, lau edo bost urte nitueanean, elizako korora igo eta organistaren ondoan jesartzen nintzen. Gure amak organista izateko jai nintzela zioen. Asko gustatzen zait besteei laguntzea eta musika jotzea. Segun eta zein tokitan nagoen, orduak emango nituzte beste organista batzuei entzuten.

**"AHAL DUGUN NEURRIAN, HILETETAN FAMILIEN MINA ARINTZEN AHALEGINTZEN GARA"**

Pol. Biarritz, pab 53 - Amorebieta | Tel: 94 673 06 23 | [www.funerialarraz.com](http://www.funerialarraz.com)



# GEURIA MARMOLERIA DURANGO Y DURANGUESADO

**ESPEZIALISTAK HILERRIETAKO LANETAN  
PLAKAK, PANTEOIAK, NITXOAK,  
GARBIKETA, MANTENU LANAK, ETAB.**



**URTE ASKOKO ESPERIENTZIA**

**ERAKUSTALDIAK ETA AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE**



**646 15 44 18**



**688 84 76 32**





Kristina Mardaras. AMAIA ALBERDI

## "Euskara zainetan daramadan odola lakoa da"

**BERTSOLARITZA** KRISTINA MARDARAS SEDRUN

Euskararen eta kulturaren transmisioan egindako lana aitortuta, Kristina Mardaras (Iurreta, 1948) omendu dute Bizkaiko Emakume Sortzaileen III. Topaketan

**Aitziber Basauri** IURRETA

Bide urratzailea eta militante nekazaria da Kristina Mardaras (Iurreta, 1948). Bertsolaritzan, lehenengo emakumea izan zen txapelketetako oholtzara igotzen. Horrez gainera, hainbat proiektutan parte hartu du kultur gintzan eta euskalgintzan. Hita noaren erabilera bultzatzeko proiektu batean ere badabil lanean orain.

**Zelan hartu duzu Bizkaiko Emakume Sortzaileen Topaketan jasotako saria?**

Bizi guztian ibili naiz herrigintzan, beti izan naiz ekintzailea. Konstante bat da nire bizitzan. Baina ez naiz sekula bakarrik ibili, talde lana izan da beti. Nire moduan, beste askok merezi dute horrelako merezimendu bat. Horregaitik, kosta egin zitzaidan saria onartzea. Hala ere, oso pozik hartu dut egin didaten

aitortza. Ekitaldia gozamenen izan zen eta oso pozik nago, ez ni aukeratu nautilako, antolatuta-ko ekitaldiagaitik baino.

**Bertsolaritzan bide urratzailea izan zinen, lehenengo emakumea Euskal Herriko Txapelketa Nagusi batean oholtzara igotzen. Bere garaian zeozer aldatu zenuen kontzientzia baduzu?**

Bai, dudarik barik. Beti izan dut. Ez naiz izan ertzak goitik behera aldatzen ibili den pertsona, nahiko borobila naiz. Pragmatikoa naiz, berez. Konturatu nintzen nire presentzia hutsak mugatu egiten zuela gizonen esamoldea, ez zela horren librea emakumei buruz fribolitatez kantatzea, han nengoe-lako. Beraz, emakumeak oholztan presentzia izatea garrantzitsua iruditzen zitzaidan.

**Orduetik gaur egunera asko aldatu da presentzia hori.**

Gutziz aldatu da, bai. Txapelketetan ere bai. Bizkaiko finalean, zortzitik bost emakumeak izan dira. Gainera, agerpen hori bermatuta dago. Gure arduetariko bat zen bertsolaritzan ari ziren emakume horiek ama izatea erabakitzean zer gertatuko ote zen. Eta ikusi dut askok jarraitu egin dutela ama izan eta gero. Horien artean daude Oihana Perea, Alaia Martin, edo momentu honetan haurdun dagoen Onintza Enbeita. Amaia Agirre bera ere hor dago, gaur egun gai jartzaile dabilen arren.

**Zein sentsazio sortzen dizu horrek?**

**"POZ HANDIA EMATEN DIT EMAKUMEAK BERTSOTAN IKUSTEAK; BATEZ ERE, GORENEKO MAILETAN"**

Poz itzela. Bertsolaritzan emakumeen presentzia bermatzea bilatzen nuen nik. Guk sentitzen duguna, guk bizi duguna, guk geuk kontatzen eta kantatzen dugu ondoen, eta emakumeen ahotsa hor egotea inportantea iruditzen zitzaidan. Poz handia ematen dit emakumeak bertso-tan ikustea; batez ere, goreneko mailetan. Eta ez inork baimendu dielako, leku hori irabazi egin dutelako baino. Bakoitza bere ahalez hor egotea ederra da benetan.

**Egindako aitortza bertsoan eskertu duzu. Ezin zen beste modu batean izan, jakina.**

Bai, bertso jarrien bitartez eman nituen eskerrak. Nire munduaren gehiengoa bertsoa da, baina ez da hori bakarrik. Emakumeen Bira antolatzen ibili naiz 22 urtean, gau eskoletan ibili nintzen irakasten... Nire ekintzailtza anitza izan da. Baina bertsolaritzatik naiz ezaguna.

**Bertsorako sena ez da agortzen?**

Ez. Bertsotan ikasi egin dut. Baina bertsolaritza ez da ikasi egin dudana zerbait bakarrik. Esango nuke txikitatik izan dudala sortzailtza hori barruan. Beraz, edozein momentutan izan zenezake bertsoa buruan, edozerk ekarri diezazuke bertso bat edo ipuin bat idazteko motibazioa. Gutxi-asko, senarrak eta biok ia egunero egiten dugu bertsoan etxean. Autoan bidaiatzen bagoaz bertsoan joaten gara. Uste dut berezkoa dudala, konstante bat da. Sarritan gertatu zait goizaldean iratzarri eta bertso bat izatea buruan.

**Euskararen eta herrigintzaren alde egindako lana ere aitortu dizute. Militante agortezina zara?**

Baietz esango nuke. Eta osasuna dudana artean jarraituko dut. Euskara zainetan daramadan odola lakoa da, ni neu izateko beharrezkoa dudana hizkuntza. Hizkuntza indartsu edo normalizatu bat izan bagenu, ez nintzen hainbeste arduratuko, baina gurea beti izan da hizkuntza zapaldua. Gau eskoletan ibili nintzen eta irakaskuntzan aritzeak zerikusit zuzena zuen euskaragaz. Gazterik hasi ginen itzulpenak egiten euskara normalizatuago egon zedin. Gaur egun, hitanoaren mugimendu bat sortzen gabiltza Euskal Herrian. Abenduaren 7an, Durangoko Azokaren barruan, Hikadromo bat egingo dugu Landako eskolan, 16:00etatik 18:00etara.



Orain urte biko kontzertua. SILBOBERRI

## Silboberriren eskutik, txistu kontzertua Durangon

**MUSIKA** Emanaldiak

50 musikari batuko ditu guztira, Landako Gunean, urriaren 26an

**A.B. DURANGO**

Silboberri txistu elkarteak kontzertua emango du, zapatuan, Durangoko Landako Gunean. Musikariek bederatzita piezak osaturiko erreperitorioa joko dute, Aritz Labradorren zuzendaritzapean. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, lehenengoz joko diren pieza bi entzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek: hain zuzen ere, *Udako Bossa* (Jon Etxeandia) eta *Saudaderik ez!* (Karlos Sanchez-Ekiza). Gainerako piezak moldaketa berriak izango dira: *Guillermo Tell*, *Onraitza Sinfonikoa*, *Eperra*, *Amaya*, *Series TV Poupurri*, *Barras y estrellas* eta *Txanton Piperri*. Txistu emanaldiak 50 musikari batuko ditu eta 20:00etan hasiko da.

**Dantzariak eta abesbatza**

2000. urtean jaiotako Silboberri elkarteko kideek azaldu dutenez, musikariek ez ezik kontzertuan parte hartuko dute baita Iubilo Bilbao abesbatzak, Durangoko L'Atelier eskolako dantza neoklasikoko dantzariak eta Igorreko Arantzarte Jantza euskal dantza taldeak ere. Urko Lopezek gidatuko du dagoeneko urteroko hitzordu bihurtu den Durangoko txistu kontzertua.



# BHCK jaialdiaren aurkezpen festa

**MUSIKA** BHCK hardcore jaialdiaren seigarren edizioaren aurkezpen festa egingo dute zapatuan, Zaldibarko Sorgin tabernan; Tooth eta Kolpeka talde gernikarrek emango dituzte kontzertuak; aurretik, etxeko musika jartzaileak egongo dira 18:00etatik aurrera

**A. M. ZALDIBAR**

Iazko edizio arrakastatsuen ondoren, BHCK jaialdiko antolatzailak motorrak martxan ipini dituzte aurtengorako. Aurkezpen festa egingo dute Zaldibarko Sorgin tabernan. Bertan, Tooth eta Kolpeka talde gernikarrek emango dute kontzertua. Lehenengoak *Errautsetatik* hirugarren lan luzea aurkezteko biran murgildurik daude; azken lanean, post rock doinu gordinagoetara hurbildu dira. Kolpeka taldeak *Amorruz beteta* lan laburra kaleratu zuen 2022an. Punk eta hardcore doinu gogorak jorratzen dituzte bertan. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira eta aurretik musika jartzaileak egongo dira.

## Etxekoak etxean

Azaroaren 23an izango da BHCK jaialdiaren seigarren edizioa, Berrizko Hiltzategi gaztetxean. Ohikoa den moduan, etxeko eta kanpoko taldeek osatuko dute kartela. Aurtengoan, baina, inoiz-



Tooth. PEIO GOIENETXEA

ko ediziorik jendetsuena izatea espero da. Hain zuzen ere, bederati taldek osatzen dute kartela: Durangaldeko Armari, Eje, Meison eta Worth It taldeek osatuko dute etxeko ordezkaritza. Boneflower madrildarrek eta Glitter katalanek proposamen desberdi-

nak dituzte; lehenengoek doinu berritzaileagoak jorratzen dituzte, eta bigarrenek eskola zaharreko doinuak. Jaialdia borobiltzeko, Euskal Herriko hardcore proposamenik interesgarrientariokoak dituzten Revertt, Vibora eta Zikin taldeak ere arituko dira.



Galder Izagirre. DIAPOSITIVISME\_STUDIO

## Galder Izagirrek Berrizen hasiko du aro berriko kontzertu bira

**MUSIKA** Galder Izagirre musikari gipuzkoarrak kontzertua emango du gaur, 21:00etan, Berrizko Kultur Etxean

**A. M. BERRIZ**

Berri Txarrak, Dut eta Kuraia taldeetako bateria-jotzailea izandako Galder Izagirrek bere ibilbideko lehenengo bakarkako lana kaleratu zuen iaz, *ESC* (Forbidden Colours, 2023). Izagirrek berak konposatu ditu kantak, eta berak jo ditu musika tresna guztiak. Post punka, pop elektronikoa eta doinu dantzagarriak dituzten hamar abestik osatzen dute diskoa. Forbidden Colours diskoetxearen agur festan lagin txiki bat erakutsi eta gero, zuzeneko bira propioari ekingo dio gaur Berrizen. Kontzertua 21:00etan

izango da, Berrizko Kultur Etxean. Ondoren, Sopelako (Bizkaia) kultur etxea bisitatuko du, besteak beste. Oraintsu, gainera, Amua lehiaketarako hautatu dute *Ilunabarrean* bideoklipa.

## Luxuzko kideak

Izagirrek irailean jo zituen lehenengo bere abestiak zuzenean. Oraingoan, luxuzko musikariak izango ditu alboan: Ilargi Agirre bateria jotzen, Onintze Garcia gitarra, Hodei Esteban baxua, eta Haize Carricaburu teklatuak. Izagirrek, abesteaz gainera, bateria eta gitarra joko ditu.



## GAI LIBREAN

**ESTI ALBIZU GOIKOETXEA** BIZENTA MOGELEKO KUDEATZAILEA

## Bakardadeari aurre egiteko estrategiak

Gaur egungo gizartean bakardadea arazo sozial handienetako bat da. Digitalki inoiz baino konektatuago egon arren, jende askok gero eta isolatuago sentitzen du bere burua. Deskonektatze horrek bakardadeari aurre egiteko ekimenak garatzera bultzatu ditu gobernuak eta enpresak. 2018an, Erresuma Batuko gobernuak "Bakardadearen Ministerioa" sortu zuen, arazo honi modu eksklusiboan heltzeko. Japonian, biztanleria gero eta zaharragoa denez, robot sozialak sortu dituzte bakarrik bizi diren adineko pertsonen laguntzeko, haien isolamendu sententzia arintzeko asmoarekin.

Sektore askotako enpresek ere neurriak hartu dituzte. Jumbo supermerkatu kate holandarrak "kaxa gel-doa" martxan jarri ditu; haietan bezeroek, bereziki nagusiek, denbora eman dezakete kutzazainekin lasai hitz egiten, eta horrela giza harremanak edukitzeko

**"INOIZ BAINO KONEKTATUAGO EGON ARREN, JENDE ASKOK GERO ETA ISOLATUAGO SENTITZEN DU BERE BURUA"**

**"ERRESUMA BATUKO GOBERNUAK 'BAKARDADEAREN MINISTERIOA' SORTU ZUEN ARAZOARI HELTZKO"**

aukera eskaintzen zaie eguneroko errutinan. Bestalde, teknologia-enpresa batzuek barne-programak ezarri dituzte langileen ongizate emozionala sustatzeko, lan-esparruan gizarte-topaketak bultzatuz.

Egoera honetan, bibliotekak gero eta aktiboagoak dira komunitate sustatzaile gisa. Irakurketa edo ikas-kuntzarako leku soilak izateari utzi diote, eta, horren ordez, pertsonak elkartu, tailerretan parte hartu eta irakurketa klubetan eta bestelako jardueretan parte hartzeko espazio bihurtu dira, komunitate-sententzia sustatuz. Joera berri honek bibliotekak komunitatearen sortzaile eta indartzaile bihurtzen ditu, harreman gizatiarrak sustatzeko toki ireki eta eskuragarri eskaintzen baitute. Horrela, arlo publiko zein pribatuetatik, gaur egungo erronka handienetako bati, bakardadeari, aurre egiteko irtenbideak bultzatzen ari dira.



# "Sokatira sokari tira egitea baino gehiago da"

**SOKATIRA** Abadiño Sokatira Taldea denboraldi berria hasteko atarian da. Miren Zurikarai, Oneka Elorriagarentzat eta Unax Azkorbebeitientzat lehen esperientzia da aurtengo. 18 urtegez sokatiran hastea erabaki dute. Kirol gogorra eta polita dela diote

**Joseba Derteano** ABADIÑO

Urtero gazte gehiagok probatzen dute sokatira Abadiño Sokatira Taldeagaz, eta aurtengo denboraldia ez da salbuespena: Miren Zurikarai Iribarrek, Oneka Elorriaga Villak eta Unax Azkorbebeitia Larrañagak hilabete daramate taldean. Hirurak abadiñarrak dira, 2006an jaiotakoak. **Zelan batu zarete sokatira taldera? Miren Zurikarai:** Onekak eta biok betidanik ezagutzen dugu sokatira taldea. Tradizio handia du herrian. Taldekideek denbora bat zeramaten taldera batzeko animatzen. Aita Kurutzetako jaietan berriro galdetu ziguten eta orduan erabaki genuen baietz, probatuko genuela.

**Unax Azkorbebeitia:** Niri familiaritate datorkit afizioa. Aita sokatiran ibilitakoa da eta gaur egun anaia dabil. Anaiaz aritzeak ilusio itzela egiten dit. Eta esango nuke ilusiorik handiena aitari egiten diola gu biok taldean elkarrengatik ikusita.



Azkorbebeitia, Zurikarai eta Elorriaga entrenamendu saioan.

**Aholkuak ematen dizkizute?**

**U.A.:** Bai, aitak eta anaiak aholkuak ematen dizkirate eta gustura hartzen ditut. Niretzat laguntza bat dira. Baina ez eurenak bakarrik, entrenatzaileek eta edozein taldekidek emanda-

ko aholkuak ere oso baliotsuak dira niretzat.

**Beste kirol batzuk probatutakoak zarete?**

**M.Z.:** Txikitik igeriketa egiten nuen, baina orain urte asko utzi nuen.

**Oneka Elorriaga:** DRTn errugbian ibili nintzen urtebetean.

**U.A.:** Ni ere errugbian ibilitakoa naiz, DRTn baita ere, lau bat urtez. Orain urte bi utzi nuen, belauneko lesio bategatik. Meniskoa ebakuntza bi egin dizkirate. Oraindino igartzen dut zeozer lantzean behin. Egia esanda, errugbia uzteak pena handia eman zidan, ikaragarri gustatzen zait eta. Beharbada bueltatuko naiz inoiz, baina orain sokatiran zentratuta nago.

**Hilabete daramazue entrenamenduetan. Zelan sentitzen zarete?**

**M.Z.:** Ni neu oso gustura nabil. Kostatzen ari zait, baina normala da, oraindino ikasten nabilelako. Benetan gustura sentiarazten nauena taldeko giro ona da. Hasieratik asko lagundu digute.

**O.E.:** Nire partetik ere berdin. Ez nekien seguru zer aurkituko nuen, baina probatu egin gura nuen, zelan sentitzen nintzen jakiteko. Kirol gogorra iruditzen zait, baina apurka ikasten nabilela sentitzen dut, eta, taldeko giroa oso ona denez, jarraitzeko asmoa dut.

**U.A.:** Kirol gogorra da, batez ere hasieran, baina oso polita ere bai.

**Kirol bat hutsetik ikastea ez da erraza. Zer da gehien kostatzen zaizuen?**

**M.Z.:** Niri postura mantentzea kostatzen zait; eta indarra zezag egin behar dudana ikastea. Beti pentsatu dut soka hartu eta in-

darra egitea zela sokatira, baina ezetz konturatu naiz. Hori baino sekretu gehiago du. Eskuek eusteko balio dute, baina gerriagaz eta hankekin egiten da benetan indarra.

**O.E.:** Gerria ondo sartu eta handik hanketera egin behar da indarra. Sokatiran hasten zarenean konturatzen zara teknikak ematen duena baino garrantzi handiagoa duela. Taldearen koordinazioa ere oso garrantzitsua da.

**M.Z.:** Bai, hala da. Bat huts egiten hasten denean dena erortzeko arriskua dago, dominoko piezen moduan. Baina, apurka, hobetzen gabiltzala ikusten dut.

**U.A.:** Ados nago esandako denagaz. Sokatira sokari tira egitea baino askoz gehiago da.

**Plazan ofizialki debuta egiteak ilusioa egiten dizue?**

**M.Z.:** Bai. Oraindino ez naiz prest sentitzen, baina unea helitzen denean ilusioa egingo dit.

**O.E.:** Abadiñotik kanpora irten, txapelketan zure herria eta taldea defendatu... Polita izango da.

**U.A.:** Egunen batean munduko txapelketa batean parte hartzea gustatuko litzaidake.

**"ESKUEK EUSTEKO BALIO DUTE, BAINA GERRIAGAZ ETA HANKEKIN EGITEN DA BENETAN INDARRA"**

## Durangoko mendi martxaren lehenengo aldia, domekan

**MENDIA** Durangoko mendi martxak Durangaldeko Gailurrak irteeraren lekukoa hartuko du asteburuan



Inunganetik Obako Atxera joango dira ibilbidean zehar. ALPINO

**J.D. DURANGO**

Domeka honetan, Durangoko Mendi Martxak erreleboa hartuko dio Durangaldeko Gailurrak irteerari. Ekimen berriagaz, publiko zabalagoarengana heldu gura dute.

Ibilbide bi prestatu dituzte. Luzeak 25 kilometro ditu, eta 1.245 metroko desnibela. Kobasoko kobatik eta Durangok duen buzoidun tontor bakarretik igaroko dira: Pagasarri (838 m). Ibilbide laburrak 15 kilometro eta 540 metroko desnibel metatua ditu. Puntu garaiena Neberondoko atsedengunea da. Bidean anoa gune bi egongo dira.

Irteera zein amaiera Landako gunean izango dira. Martxa luzea 08:00etan hasiko da, eta laburra 09:00etan. Izen ematea egunean bertan egin daiteke: nagusiek 15 euro, eta gazteek 10 euro.

## Arte martzialak protagonista izango dira bihar Durangon

**ARTE MARTZIALAK** Wadokan klubak '12 harri' openaren hirugarren aldia egingo du Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan

**J.D. DURANGO**

Wadokan klubak '12 harri' arte martzialen opena antolatu du zapaturako. Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan izango da, 09:30ean. Askotariko diziplinak batuko dira tatami gainean, hala nola karatea, taekwondo eta ninjutsua. Kirolarien eta laguntzaileen artean, 400 bat lagun batzea itzaroten dute. Tartean, arte martzialen munduko izen ezagunak egongo dira, Raul Gutierrez irakaslea kasu.

"Lehiakideen artean lehia-espirtua eta laguntasuna sustatzea

dugu helburu, baita parte hartzaileei euren trebetasuna erakusteko eta beste artista martzial batzuegandik ikastea aukera eskaintzea ere", adierazi dute Wadokan klubeko kideek ohar batean.

**Domekan, mintegia**

Ekimenak aurrera jarraituko du domekan ere, baina beste formatu batean. Raul Gutierrezek arte martzialei buruzko mintegi bat emango du 10:00etatik 13:30era, Wadokan klubaren egoitzan.



# Apalagoa, baina beti bezain garrantzitsua

**ZIKLO KROSA** Elorrioko ziklo-krosak 47. aldia egingo du asteburu honetan. Iaztik ez du nazioarteko mailarik, baina etapa berri honetan inportantea izaten jarraitzen du, batez ere harrobiari eta gazteei begira. Iaz, inoiz baino gazte gehiagok parte hartu zuten

**Joseba Derteano** ELORRIO

Elorrioko ziklo-krosak 47. aldia beteko du asteburu honetan. Iaz hasitako etapa berriari jarraituta, Euskaldun torneoaren eta Bizkaiko Koparen barruko proba izango da. Ez du nazioarteko zigilurik eta ezta sasoi bateko oihartzunik ere, baina beste helburu batzuk lortzeko beti bezain inportantea izaten jarraitzen duela aldarrikatu dute antolatzaileek, batez ere harrobiari eta ziklista euskaldun gazteei begira.

"Ez da erraza lasterketak aurrera ateratzea, eta ziklistek lasterketak behar dituzte euren maila hobetzeko. Proba apalagoa izan arren, Elorriokoak garrantzitsua izaten jarraitzen du", azaldu zuen aurkezpen ekitaldian Zugaitz Ayusok, Elorrio Txirrindularitza Elkarteko kideak. Parte hartzeari dagozkion datuak oso onak dira: asteburu osoa kontuan hartuta, 380 ume eta beste hainbeste nagusi egotea



Probako antolatzaileak eta babesleak.

itxaroten dute; ia 800 txirrindulari. Probako antolatzaileetako den Joseba Gorostizak beste datu positibo bat eman zuen aurkezpenean: "Sei bider nazioarteko mailako proba izan dugu, hiru bider C1 mailakoa,

eta beste hirutan C2 mailakoa. Bada, kadete mailako partaideen errekorra iaz izan genuen: 96 kadete mutiletan eta 35 nesketan". Beste lasterketa batzuetan ere gorakada bat izan dela nabarmendu zuen. Esaterako, joan

zen asteburuan, Urduñan, 70 kadete ibili ziren mutiletan, eta 30 nesketan.

**Zapatuan eta domekan**

Ziklo-krosa asteburu osoan izango da protagonista Elorrioren. Zapatuan, 15:30etik 17:00etara, umeak ibiliko dira, benjaminetatik haur kategorietara artekoak, hain zuzen ere. Domekan nagusien txanda izango da. 09:30ean master mailakoak hasiko dira, eta, ondoren, kadete eta juniorrak. Emakumeen elite mailako proba 11:30ean hasiko da, eta gizonen elite mailakoa 12:30ean. San Joseko landetako zirkuitua —2.700 metro— iazko bera izango da.

Faboritoei dagokienez, Laida Hierro durangarra aipatu daiteke emakumeetan. Joan zen asteburuan Urduñako ziklo-krosa irabazi zuen eta sasoi dago. Gizonetan, Aitor Hernandez eta Iñigo Gomez dira faborito bi.

**Lan talde eraberritua**

Lasterketa antolatzen duen lan-taldean erreleboa egon da aurtun. Nagusiagoek gazteagoi pasatu diete testigua. Odol berri horren adibide da gaur egun Elorrioren bizi zen Zugaitz Ayuso itsasondoa. Munduko txapelketan sei bider aritutakoa da eta bere esperientzia Elorrioko ziklo-krosaren mesedetan erabili gura du. Ayusok "esker-rak" eman zizkien urte askoan lanean aritu direnei.

## Eskamezek trinketeko finala jokatuko du, gaur

**TRINKETA** Iker Eskamez abadiñarrak Murillo izango du aurkari Tornosoloko buruz buruko finalean

**J.D. ABADIÑO**

Kepa Arroitauregiren oroi-menezko txapelketako finalak gaur jokatuko dira, Abadiño Tornosolo trinketean, 18:30ean. Buruz buruko eta binakako final bana izango da. Buruz burukoan etxeko pilotari bat izango da protagonista: Iker Eskamez. Pilotari abadiñarrak Arai Murillo iruindarra izango du aurkari. Murillo da irabazteko faboritua, batik bat finalerdietan iazko txapeldunordeari erraz irabazi ziola kontuan hartuta. Hala ere, Eskamezek baditu Murillori aurre egiteko armak, eta sorpresa ematen ahaleginduko da.

Gomazko paletako bikote mistoen finala honako hau da: Sagazazu eta Housset Larralderen eta Asurmendiren kontra. Finalako gakoak Sagazazu aurrelari gipuzkoarrak izan dezake, partiduari beste erritmo bat ipintzeko ahalmena duelako.



JOKALDIA

**AITOR ARABIOURRUTIA OBREGÓN** TRINKETA

## Erreferenteak

Gaur egungo munduan, irudiaren munduan, garrantzitsua da gurea bezalako modalitate eta joko ez-hain ezagunek erreferentzia sendoak izatea. Erreferenteek, aitzindariak, zabaldu gabeko bide bat zabaltzen dute, eta atzekoek bide hori samurragoa izatea lortzen dute.

Denborarekin eta perspektibaz, aitzindari horiek egindako bideaz jabetzen zara: egindako apostuaz, izandako buru-hausteez, izan beharreko buru-gogorke-riaz... bidea jarraitzen besterik ez zabiltzanean dena erraza iruditzen zaizu, baina erraztasun horiek ez dira magia etorri, aurrekoek egindako lan guztiari esker izaten dira.

Durungaldeak, zortez, hainbat erreferente eman dizkigu Trinket jokoan, (esku-huska batez ere) besteak beste: Ander Martin, Ander Antxia, Mikel Gonzalez, Rober Uriarte eta Asier Aspuru, batzuk aipatzekotan. Hauen aurretik, guztien gidari izandako Kepa Arroitauregiren eskutik zerotik hasi ziren Unai Martin eta Oier Elorria-

**"ZORITXARREZ, GAUR EGUNGO GAZTETXOEN ERREFERENTZIAK EZ DATOZ ETXETIK EDO INGURU HURBILETIK"**

**"HONI AURRE EGITEKO, GAUR TORNOSOLON JOKATUKO DEN V. KEPA ARROITAJAUREGI MEMORIALA DUGU"**

ga. Eta ez nituzke ahaztu nahi Tornosolo pala taldeko emakumeak. Hauek bai benetako aitzindariak.

Baina, zoritxarrez, gaur egungo gatzetxoek erreferentziak ez datoz etxetik edo bere ingurune hurbiletik. Mundu digitalak dena eraldatu du eta erreferentziak gure kontestu sozialetik oso at dauden figuretatik datoz. Eta gure kirolak ez dira fenomeno honetatik at geratzen, zoritxarrez. Honi aurre egiteko, gaur jokatuko den V. Kepa Arroitauregi memoriale dugu, erreferentzia izateko lanean diharduen pilotazale talde batek hegoaldeko trinket mundua erreferentzia izan dadin lanean diharduten pelotazaleei esker aurrera doana.

Euskarak askotariko esaerak ditu mezu hau guzti hau laburbiltzeko: gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, soilik pausoak dakar pausoa, eginez egiten da bidea... esapide hauek errealitatean islatzea besterik ez zaigu geratzen orain. Ez dadila haria eten.







## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO  
LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 25

**ABADIÑO Urteurrena**  
Gaztetxearen 26. urteurrena.  
Txokolatea, 17:00etan.  
Umeentzako DJa, 18:00etan.  
Ping-pong txapelketa.  
*Gaztetxean.*

**ABADIÑO Erakusketa**  
'Natura ilustratzen' (EHUko Ilustrazio Zientifikoko ikasleen lanak)  
*Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra bitartean.*

**BERRIZ Musika**  
Galder Izagirre, 'Esc' lanagaz.  
*Kultur Etxean, 21:00etan.*

**DURANGO Erakusketa**  
'Playground' (Xabi Gaztelu).  
*Arte eta Historia Museoa, azaroaren 24ra bitartean.*

**DURANGO Erakusketa**  
Mikel Hidalgoren lanak.  
*Ezkurdi erakustaretoan, azaroaren 3ra bitartean.*

**ELORRIO Erakusketa**  
Patxi Granadoren, Josu Urizarbarrenaren, Maria Otxandianoren, Bego Colomoren, Larraitx Loizateren eta Karlos Erizen argazkiak (Elorrioko Argazki Taldea).  
*Iturri kultur etxean.*

**ELORRIO Antzerkia**  
'Hoy no estrenamos' (L'om Imprebis).  
*Arriola antzokian, 20:00etan.*

**IURRETA Ipuinak**  
Oihana Etxegibel ipuin kontalaria  
*Bibliotekan, 17:30ean (3-5 urte) eta 18:00etan (sei urtetik gora).*

**IURRETA Berbaldia**  
Gurutze Fradesegaz, Pedro Horrillogaz, Ana Usabiagaz eta Iban Mayogaz solasaldia.  
*Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.*

**MALLABIA Urriko Jaiak**  
Buruhandiak eskolatik, 16:30ean.  
Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia, 17:00etan, parkean.  
Txupinazoa: Malle Euskal Pilota Kluba, 18:30ean, udaletxeko balkoitik.  
Ondoren, Elektrokela elektrotzaranga.  
III. Kickboxing-boxeo gaua,

frontoian (18:30-21:30).  
Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan.  
Musikabia taldea, 20:15ean, parkean.  
Hanburgesa pintxoak, 20:30ean.  
Dantza: "Aske izan nahi dut eta aske zurekin, eta honek?", 21:00etan.  
AIAMA + Beranduegi, 21:30ean.  
*Mallabian.*

**ZORNOTZA Erakusketa**  
'Bosteko 2024: Karratu beltz leuna'.  
*Zelaietako erakusketa gelan, azaroaren 3ra bitartean.*

**ZORNOTZA Erakusketa**  
'Nemesio Bikandi omenduz'  
*Zelaieta zentroan, azaroaren 10era arte.*

## ZAPATUA 26

**ABADIÑO Urteurrena**  
Gaztetxearen 26. urteurrena.  
Bizikleta martxa, 11:00etan.  
Bazkaria, 14:30ean.  
Karropoteoa, 18:00etan.  
Makis 3 + Zentzu Okerra, 21:00etan.  
Gero, DJ Mikerinos + DJ Yiyi.  
*Gaztetxean.*

**ABADIÑO Musika**  
VIII. Amaraun Elektronikoa: Azkonar + Ibis Templum + Jkin Alonso + Tibe.  
*Amaraun Arte Fabrika, 14:00etan.*

**BERRIZ Azoka**  
Berriztu azoka.  
*Probalekuan, 10:00etan.*

**BERRIZ Ipuinak**  
'Barre egiteko ipuinak' (Bego Alabazan).  
*Berrizko Kultur Etxean, 12:15ean.*

**BERRIZ Antzerkia**  
'Restos de un naufragio' (Viridiana).  
*Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.*

**DURANGO Sanfaustoak**  
Durango txistu kontzertua 2024.  
*Landako Gunea, 20:00etan.*

**IURRETA Ibilaldi gidatua**  
'Goiuria oinez'. Ondare Jardunaldiak.  
*Ermittaren alboan, 11:00etan.*

**IURRETA Irteera**  
Artxandara bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.  
*Iurreta, 09:00etan.*



LARUTAN

**ZORNOTZA Dantza**  
LaRutan konpainiak 'Rosas to Dance' ikuskizuna taularatuko du, gaur, Zornotzan. Maisu lanak diren eta dantza garaikidearen ondare kulturalaren oinarriak ezarri dituzten pieza eszenikoetatik ibilbide historikoa egingo du.  
*Urriak 25, barikua, Zornotza Aretoan, 20:00etan.*

**IURRETA Irteera**  
Emakumeentzako bizikleta irteera  
Gurutze Fradesegaz.  
*Askondo, 10:00etan.*

**MALLABIA Urriko Jaiak**  
Frontenis maratonia, 09:00etan.  
Duatloi txikia herri barruko zirkuituan, 11:30etan.  
Mallabiko VII. Ardu Ferixie, probalekuan (12:00-15:00).  
Herri bazkaria eta bingo musikatua, 14:30ean, parkean.  
Jokai, egur jolasak, plazan (16:00-19:00).  
Uk03 txaranga, 18:00etan.  
Dupla+ Unidad Alavesa + Ezpalak, 22:30etan.  
Gero, DJ Marrazo, Herrikoko txokoa.  
*Mallabian.*

**ZALDIBAR Musika**  
BHCK aurkezpen jaia: Tooth+Kolpeka.  
*Sorgin tabernan, 18:00etan.*

**ZORNOTZA Ipuinak**  
'Munduko panpinak' (Lupe Lekuona).  
*Zelaieta zentroko liburutegian, 12:00etan.*

## DOMEKA 27

**ABADIÑO Urteurrena**  
Gaztetxearen 26. urteurrena.  
Abadiño sorkizaleen azoka.  
*Gaztetxean, 11:00etatik 14:30era.*

**DURANGO Antzerkia**  
'Hoy no estrenamos' (L'om Imprebis).  
*San Agustin kultur gunean, 19:00etan.*

**DURANGO Sanfaustoak**  
Durangoko I. Mendi martxa, 08:00etan hasita, Landako Gunean.  
55. Umeen Euskal Jaia: Kalejira Landako Gunetik, 12:00etan.  
Alardea, Ezkurdin.  
*Durango.*

**IURRETA Irteera**  
Basaurira bizikleta irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarte.  
*Iurreta, 09:00etan.*

**MALLABIA Urriko Jaiak**  
Frontenis maratonia, 09:00etan, eskolako frontoian.  
III. Autoen Slaloma, 12:00etan, Goitondo Beheko Lau industrialdean.  
Kidam magoa, 16:30ean, probalekuan.  
Ondoren, txokolatada.  
Mus txapelketa, 17:00etan, Kontzejuzarrean.  
*Mallabian.*

**ZALDIBAR Ibilaldi gidatua**  
'Eitzaga, Zaldibarko ekialde urruna'.  
Europako Ondare Jardunaldia.  
*Diutazio plaza, 10:30ean.*

**ZORNOTZA Azoka**  
Zaldialdia: Euskadiko I. Zaldi Azoka.  
*Jauregiarriako parkean, 09:00etan hasita.*

## ASTELEHENA 28

**MALLABIA Berbaldia**  
'Heriotzak bizitzen irakatsi dit' (Hizlariak: Pello Mugarza eta Irene Sarrionandia).  
*Kontzejuzarrean, 19:00etan.*

## ZINEMA

## BERRIZ

## KULTUR ETXEA

**Liztor Kapitaina**  
domeka 27: 17:00.

**Les Pires**  
eguztzena 30: 18:30.

## DURANGO

## ZUGAZA ZINEMA

**Venom: El último baile**  
barikua 25: 18:00, 20:30.  
zapateria 26: 16:45, 19:00, 21:30.  
domeka 27: 17:00, 19:30.  
astelehena 28: 18:00, 20:15.  
martitzena 29: 18:00, 20:15.  
eguztzena 30: 19:00.

**Rita**  
barikua 25: 18:00, 20:30.  
zapateria 26: 19:30, 21:30.  
domeka 27: 18:00.  
astelehena 28: 18:00, 20:15.  
martitzena 29: 18:00, 20:15.

**El club de los milagros**  
barikua 25: 18:00.  
zapateria 26: 17:30, 21:30.  
domeka 27: 20:00.  
astelehena 28: 20:15.  
martitzena 29: 18:00.

**La infiltrada**  
barikua 25: 20:30.  
zapateria 26: 19:00.  
domeka 27: 19:30.  
astelehena 28: 18:00.  
martitzena 29: 20:15.  
eguztzena 30: 19:00.

**Robot salvaje**  
zapateria 26: 16:45.  
domeka 27: 17:00.

**Marco**  
eguztzena 30: 19:00.

## ELORRIO

## ARRIOLA ANTZOKIA

**Kneecap**  
zapateria 26: 20:00.  
domeka 27: 20:00.  
astelehena 28: 20:00.

**Gru 4. Mi villano favorito**  
domeka 27: 17:00.

## ZORNOTZA

## ZORNOTZA ARETOA

**La infiltrada**  
zapateria 26: 20:00.  
domeka 27: 20:00.  
astelehena 28: 20:15.

**Transformers one**  
zapateria 26: 17:00.  
domeka 27: 17:00.

## LA INFILTRADA



## EGUAZTENA 30

**MALLABIA Ipuinak**  
'Xanduli-manduli kikirriki ikarari ezin eutsi!' (Oihana Etxegibel).  
*Liburutegian, 17:00 (3-5 urte) eta 18:00 (sei urtetik gora).*





LAU-HORTZA

MAITE EUBA  
AREITIOAURTENA

## Ez gabilta ondo

Institutuan eta unibertsitatean ketan ematen genituen klaseak. Gaur, berriz, eskuak burura eramango genituzke. Etxean bospasei edukiontzi erabiltzen ditugu birziklatzeko. Orain urte batzuk pentsatu ere ez genuen egiten horrelakoetan.

Badakit denok ikasi behar izan dugula egokitzen sasoi berrietara. Eta hala ere, ez ditut gaurko hainbat ohitura aldaketa ulertzen, beste asko txalotzen ditudan arren.

Gaztetan txakurra eduki nuen. Perla da gure katua. Etxeko abere eta pizti zalea naiz. Baina benetan ematen diegu behar duten zaintza eta errespetua etxe-abereei? Ondo zaintzea umeen lekua egokitzea ete da? Maskoten kopuruak gora egin du nabarmen, eta, jakina, gure inguruan paisaia guztiz aldatu da. Eurentzako parke propioak jolas daitezten, denda ugari: janari, jostailu, arropa eta abarrez hornituta; albaitari, psikologo... merkatu berria ekonomia suspertzeko. Ordainetan, kale ertz guztietako usain sarkor fosilizatua.

Ez dut ulertzen zelan litekeen gero eta arazo gehiago izatea gure zaharrak zaintzeko, eta etxeko erregin-erregina egitea egun batetik bestera zelofanez batuta jaso dugun azken oparia, izan txakurra, katua, paita edo auskalo zein hurrengo. Ez gabilta ondo edo agian ni neu ez nabil ondo.

AKUILUA

# "Tangoa sentimendu bat da, arimaren eztanda bat"

**JOHANA ILLANES TANGO DANTZARIA**

Johana Illanesek (Buenos Aires, 1984) orain 15 urte eman zituen lehenengo pausoak tangoa ikasteko. Modu profesionalean aritu ez den arren, hainbat erakustaldi eman du

**Aitziber Basauri DURANGO**

Buenos Airesko Mataderos auzoan jaiotakoa da Johana Illanes, eta 2016tik hona Durangon bizi da. Erronka pertsonala du jendeari tangoa zer den erakusteko proiektu bat sortzea.

**Buenos Airesek eta Durangok ez dute zerikusirik.**

Ez. Eta zer esanik ez hiriaren tamainari dagokionez, baina ezta bizitzeko erari dagokionez ere. Durangora etorri aurretik, Parque Patricios auzoan bizi nintzen, kanpoaldean. Baina auzoetan ere segurtasun falta handia dago han.

**Parque Patriciosen ikasi zenuen tangoa dantzatzeko.**

Bai, tangoaren hiriburuan. Orain hamabost bat urte hasi nintzen lehenengo pausoak ematen. Beti izan dut lotura estua tangoagaz. Buenos Aireskoa izanda, sustraian daramagun zerbait da, kulturala. Baina urruneko zeozer lez ikusten nuen, ikasteko gatxa. San Patriciosen kalean ikusten nuen tangoa, eta ederra iruditzen zitzaidan. Arreta eman zidan eta praktikatzeko hasi nintzen. Hainbat irakasleagaz hasi nintzen, baina garai bateko tango dantzari bat ezagutu arte ez ninduen harrapatu. Tangoa



**"ELKARREN GUZTIZ OSAGARRIAK DIREN ARIMA BIREN ARTEKO KONEXIOA DANTZAN. HORIXE DA TANGOA"**

berezkoa zuen, barruan zeraman. Beragaz ikasi nuen.

**Ez zara era profesionalean aritu.**

Ez, afizionatu lez aritu naiz, Bilbon. Eta eskolak eman izan ditut, Durangon. Elkarteren batek gonbidatuta ere dantzan egin dut. Iaz, Durangoren eta

Montevideoren senidetze ekitaldian, San Agustinen dantzatzeko aukera izan nuen, eta aurten ere dantzatu dut. Plateruan ere egin ditut erakustaldiak.

**Ogibide bihurtu gura zenuke?**

Bai. Erronka pertsonala dut tangoa erakusteko proiektu bat sortzea, jendea dantzatzera animatzeko. Polita litzateke.

**Zer du berezi tangoak?**

Kultur tradizioetik harago, barrutik datorren espresioa, arimaren espresioa da. Horrela sentitzen dut. Tangoa dotorezia da, elkarren guztiz osagarriak diren arima biren arteko konexioa dantzan. Ezinbestekoa da bikotekideagaz lotura; bestela, deseroso zaude, tangoa ez da sortzen. Bakarrean batzen diren lagun biren energiagaz sortzen da.

**Gatx da dantzatzeko ikastea?**

Bai, bere denbora darama. Baikoitzaren sentsibilitateak zerikusi handia du tangoagaz. Guztiz elkarren osagarri diren pertsona bi badabilta dantzan, igarri egiten da. Sentimendu bat da, arimaren eztanda bat. Dantza guztiek lez, bere teknika du eta ekin egin behar da ikasteko.

**Tangoak harrapatu egiten zaitu? Badago zaletasunik Durangon?**

Probatu dutenei hala gertatu zaie. Tangoa dantzatzeko ikusita, jendea liluratuta geratu da, eta ikasteko gogoia erakutsi didate, baina gero ez dira animatu. Jardunaldi zabal bat egin dudanean jende asko etorri da.

**Ondo egokitu zara Durangora?**

Oso maitatua eta babestua sentitzen naiz. Lagun on asko dut, euskaldunak. Euskara ikasten ere ahalegindu naiz hainbat bider... Ondo bertakotu naiz, baina nire ohiturek, sutraiek... pisua dute.

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



 Smurfit Westrock